


“HARTZEA EMATEA DA”

Durangoko Azokak abenduaren 5ean
zabalduko ditu ateak. 933 nobedade jasotzen
dituen Azokaren goiburuari erantzunez,
hartu eta eman dezagun, baDA! /1-32



DURANGOKO AZOKA

www.bodegaslauna.com



Arabar
Errioxa

Launa

TALAIA

ABENDUAK 5, EGUENA

IKASLE GOIZA

TALAIA

11:00 Badok musika ataria; irakasleentzako aukerak. Berbaldia (Ahotsenea Literatura).

12:00 Pentsamendua gazte hizkeratik. Tailerra (Ahotsenea literatura).

TALAIA - MUSEOA

11:00 Nestor Basterretxea: collage-a eta diseinu grafikoa. Tailerra.

12:30 Nestor Basterretxea: collage-a eta diseinu grafikoa. Tailerra.

11:00 Nestor Basterretxea: collage-a eta diseinu grafikoa. Tailerra.

12:30 Nestor Basterretxea: collage-a eta diseinu grafikoa. Tailerra.

17:00 Herrigintza, militantzia, aktibismoa, krisian?! Badalab hizkuntza berrikuntzako laborategia + Euskalgintzaren Kontseilua + Jakin Fundazioa + TEKS Elkarte. Liburu aurkezpena.

ABENDUAK 6, BARIKUA

TALAIA

10:30 Euskarazko kultur gintzaren transmisioa hedabideetan: proposamen bat. Kultur Sorkuntzaren Transmisioa egitasmoa. Aurkezpena.

11:00 Euskaraldiaren laugarren edizioaren kanta. Euskaraldia 2025. Aurkezpena.

11:30 Goldatuz-Euskal abertzaletasunari buruzko gogoetak. Naziogintza Elkarte. Liburu aurkezpena.

12:00 'Zenbat dugun kontatzeko' mapa. Seaska. Aurkezpena.

12:30 Ehun urteko gerra Palestinaren aurka. UEU. Liburu aurkezpena.

13:00 Odolaren matxinadak. Gorputza, politika eta afektuak. EHU argitalpenak. Liburu aurkezpena.

13:30 Euskadi Literatura saridunak: Aiora Jaka eta Jon Gerediaga. Eusko Jaurlaritza, Kultura Saila. Mahai-ingurua.

14:30 Euskal emakume idazleen literatura klasikoa. TZ testu zaharrak. Liburu aurkezpena.

TALAIA - MUSEOA

11:30 Neronek tirako nizkin / Alegiazko alegiak. TZ testu zaharrak. Liburu aurkezpena.

12:00 Klera. Kukai. Elkar. Egitasmo aurkezpena.

12:30 Herri Urrats maketa lehiaketa eta abestia. Herri Urrats. Egitasmo aurkezpena.

13:00 Euskal eskultura gaur. Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarte. Liburu aurkezpena.

13:30 'Literatura ibilian' Hegats 60. Euskal Idazleen Elkarte. Aurkezpena.

16:30 Geure gorputzean eta etxean burujabe. Elkar. Liburu aurkezpena.

17:00 Ilargia eta landareak agenda 2025. Argia. Aurkezpena.

17:30 HAZIAK Zergatik eta nola egin zureak. Argia. Liburu aurkezpena.

18:00 Orratz begia. 1936 Gipuzkoako gerra haurrak. Intxorta 1937 kultur elkarte. Liburu aurkezpena.

18:30 2000 del Winnipeg. Diario de a bordo. Intxorta 1937 kultur elkarte. Liburu aurkezpena.

19:00 Talaia Feministaren I. dosierra aletzen. Talaia Feminista. Mahai-ingurua.

ABENDUAK 7, ZAPATUA

TALAIA

10:30 Nestor Basterretxeari esker ona. Gerediaga Elkarte. Omenaldia.

11:00 Osasun Bakarra, jomuga eskuraezina. EHU Argitalpenak. Liburu aurkezpena.

11:30 Askatasun doinua. Zorrotz liburuak. Liburu aurkezpena.

12:00 Dabilen pentsamendua. Jakin Fundazioa. Mahai-ingurua.

13:00 Gazako egunerokoa. Elkar. Liburu aurkezpena.

13:30 Anjel Lertxundi: idazlea eta obra. EHU Argitalpenak. Liburu aurkezpena.

14:00 Arantzazu, hitz eta kantu: Iñaki eta Pello. Arantzazuko Edizio Frantziskotarrak. Liburu aurkezpena.

14:30 Hitz-irule. Hitz-irule. Egitasmo aurkezpena.

16:00 Liluraren kontra. Iratzar Fundazioa eta Txalaparta. Mahai-ingurua.

17:00 Kosmetikoak sendabelarrekin, zuk zeuk egitearen ederra. Argia. Liburu aurkezpena.

17:30 Ilargiaren egutegia 2025. Argia. Liburu aurkezpena.

18:00 Superbotereak. Hamar urrats eskola eraldatze bidean. Argia. Liburu aurkezpena.

18:30 'Oneka, Iruñeko erresumaren sorrera' komikia. Nabarralde Fundazioa. Liburu aurkezpena.

19:00 Uztapide eta Xalbador. Bi adiskide mugaz gaindi. Erein argitaletxea. Mahai-ingurua.

TALAIA - MUSEOA

11:30 Hik eta biok. Euskal Gaien Institutua-Deustuko Unibertsitatea. Mahai-ingurua.

12:30 Nestor Basterretxea: marrazkitik abiatutako sormena. Katrin Alberdi Egües. Berbaldia.

16:30 Hizkuntza gutxituen kultura egiten. GKE Suargi elkarte. Mahai-ingurua.

18:30 Europako idazleekin berbetan. Euskal Editoreen Elkarte. Mahai-ingurua.

ABENDUAK 8, DOMEKA

TALAIA

11:00 BaDAbil. Amets Arangurenen gidaritzapean, Amancay Gaztañaga, Beñat Sarasola eta Idoia Asurmendi. Zuzeneko podkasta.

12:00 Gako berrien bila: Hizkuntza gutxituen jarraipena, ordezkapena eta indarberritzea neurtzeko demolingistikazko tresna metodologikoa garatzen. Euskal Herrirako aplikazio praktikoa. Euskaltzaindia. Liburu aurkezpena.

12:30 Tortura Arrasaten genero ikuspegitik. Intxorta 1937 kultur elkarte. Liburu aurkezpena.

13:00 Irati. Filmaren artea. Elkar. Liburu aurkezpena.

13:30 Korapilatu karta jolasa. Hezten Aisialdi Euskaltzalea Elkarte. Aurkezpena.

14:00 Gorputz txiki batean jaino nintzen. Mikel Uribelarrea Losa. Liburu aurkezpena.

14:30 Imago Vasconiae. Txalaparta. Liburu aurkezpena.

16:00 Gizarte Dialogikoa: Zientzialariek eta herritarrek atsegin eta erabiltzen duten soziologia. Bizi Ikerketa Taldea. Liburu aurkezpena.

16:30 Nazionalismoaren alde eta aurka. Elkar Liburu aurkezpena.

17:00 Antzinaroko sustrai indoeuroparrek jende izenak: Araba eta Nafarroako sartaldea. Euskaltzaindia. Liburu aurkezpena.

17:30 Iurretako berbete eta literatura: Sator hegalaria. Pamiela. Solasaldia.

TALAIA - MUSEOA

11:30 Sormen beka DA! Gerediaga elkarte eta Durangoko Udala. Sari ematea.

12:30 DA! Kartel baten historia. Euskal Irudigileak. Elkarriketa.

18:00 Euskal eskulturaren ikuspegi garaikidea. (Gaztelaniaz) Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarte.

AgroPaper®
NEKAZARITZA
JASANGARRI BATERAKO
NEGUTEGIA



Smurfit Westrock



58. Durangoko Azoka. GEREDIAGA ELKARTEA

59. Durangoko Azoka kulturazaleei deika

Beñat Gaztelurrutia Gerediaga Elkarteko kudeatzaileak "dei berezia" egin gura izan die kulturazaleei Durangoko Azoka zabaldu aurreko egunetan: "Kulturazaleak oso katebegi garrantzitsua dira Azokan, egiturari egonkortasuna ematen diotelako"

A. M. DURANGO

59. Durangoko Azoka abenduaren 5etik 8ra bitartean egingo dute. Ohikoa baino egun bat gutxiago izan arren, aurten ere uzta ederra aurkeztuko dute bertan. Azokak 153 partaide izango ditu eta 274 erakusmahai ipiniko dituzte Landako Gunean. 933 nobedade aurkeztuko dituzte: 639 liburu, "musikari loturiko" 216 lan, 47 aldizkari, eta bestelako 31 argitalpen. Horiek aurkezteko, 200 kultur ekitaldi egongo dira. Baina, bereziki, Azoka topagunea dela adierazi du Beñat Gaztelurrutia Azokako kudeatzaileak. "Kultura bizi eta zaindu gura dugun sortzaileak, argitaletxeetako kideak, kultur-gintzako langileak eta zaleak bilduko gara bertan", azaldu du asteotan. "Kulturazaleak oso katebegi garrantzitsua dira, egonkortasuna ematen diotelako egiturari", nabarmendu du.

Honaino ailegatu aurretik, antolatzaileek hiletako lana egin dute azokari forma emateko. Eta orain hori erakusteko unea heldu da. Landako Guneko erakusmahaietan ez ezik, jada egonkor-tu diren guneek ere osatzen dute

Durangoko Azoka: Talaia, museoa, Ahotsenea, Irudienea, Kabia, Saguanbara eta Szenatokia. Hurrengo orrietan daude aletuta bertako egitaraua eta xehetasunak.

Bisitariei inkestak

Durangoko Azokak 60. edizioa izango du hurrengo. Urteurrena dela eta, Gerediagak azterketa sakona egin gura du, eta, horretarako, sortzaileak, erakusmahaiak ipintzen duten parte hartzaileak eta bisitariak elkarrizketatu gura dituzte. Gaztelurrutiak parte hartzeko deialdia egin die bisitariei. "Ordu laurdeneko kontua izango da eta guri oso baliagarria egingo zaigu 60. urteurrena prestatzeko", argitu du.

Bestalde, ordutegiari dagokionez, Durangoko Azokak iazko formatuari eutsiko dio. Landako Gunea 10:30etik 20:00etara egongo da zabalik egunero, domekan izan ezik. Egun horretan, 18:30ean itxiko ditu ateak. Durangoko Azokaren ondoren, *Zu non, han da* izeneko programa ere egingo dute aurten; 80 bat saltokik parte hartuko dute ekimenean, eta horietariko 23tan aurkezpenak ere egingo dituzte.

% 100 URA GARA

*Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz,
inbertituz eta mantenduz.*



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consortiodeaguas.eus



Iurretako hizkuntza eta literatura altxorra



Talaian egingo dute liburuaren aurkezpena, abenduaren 7an, 17:30ean.

Iurretako berbete eta literatura: sator hegalariak liburua argitaratu dute egunotan Iruñean, Pamiela editorialean. 440 orrialdetan eta ilustrazio ugariarekin, Iurretako testuen antologia ederra jaso dute. 41 ataletan, XIX. mendearen amaieratik egunok arte, Iurretan euskaraz idatzi eta kontatu dena jasotzen dute. Joseba Sarrionandia eta Xabier Boveda dira lan honen editoreak.

Alberto Erraztik toponimia errepatatzen du lehenengo, gero kantua eta *kotadera* zaharrak datoz (gehienak atoan entzun daitezke mobila eskuan QR bidez), gero ipuin zaharrak, eta hainbat autoreren testuak: Leandro Zelaieta, 1891ko euskal jailetako irabazlea, Balbino Garitao-

nandia, duela ehun urteko Euzkadi egunkariko kronistak, Pilipa Zarate, Julian Santa Cruzen gerra zibilari buruzko testigantza, Karmelo Cedrunen autobiografia, Maribel Aizpuru, Julen Kaltzada, Juanito Gallastegi, Rosa Mari Arza, Kristina Mardaras, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Jose Enrike Urrutia eta Jon Irazabalen testuak, eta baita Alaitz Areitiorenak eta Eñaut Aiartzaguenarenak ere, beste askorenen artean. Liburua irakurri ahala, irakurleak hainbat sorpresa topatuko du. Hiru ale jasoko ditugu hemen, abisatuta ehunka direla liburuak, eta aurkibidean topa daitezkeen pertsona izenak ere ia mila eta bat.

CLUB MALLABIENA FOOTBALL

Orain ehun urte futbol talde bat izan zen Iurretan. Ekipoak himnoa ere izan zuen, Jose Maria Mingolarra Anitua (1875-1955) musikariak prestatutako konposizioa. QR bidez, mobiletik entzun dezakezu abestia; hemen bertan ere proba dezakezu:

Idxorretan badago footballan batzarra. Ostikadak jaurtitzen ezta berez txarra.

El Club Mallabiena, entzute haundikua, beste on askorekin jokaturikua.

Joko gogorrian be izan da neurtua, daneri irabazi Kanpeonatua.

Erdiak-aldamenak daukaz guztiz onak, ezin tanturik sartu danik okerrenak.

Kontrario artean baloia ezin sartu. Ikusiko dituzu mutillak irritu.

Eztaukie bakerik tantua egin arte, ahaleginak egiten danak dira parte.

El Club Mallabiena entzute haundikua, daneri irabazi Kanpeonatua!



JAZOERA-ESAERAK

Liburuaren erdi aldera anekdota bilduma bat dago. Esaera bereziak jasotzen dira hainbat kontalariren ahotik, hiztegi hurrenkeran jasotzen dira, eta barregarriak dira benetan ere.

Berorren modukoa

Gu gazteak giñela, Durangon egon zan mediku bat, da izena euken Pauliño. Eta zaldidexgaz jueten zan baserridixetako geixuek bisitetan. Eta egun baten junteu zan kalien nire gizonen amamaz, hau asto ganiien, da esa'utsen:

-Hola, Josepa, bazatoz plazatik dirue guraiñe hartute?

Da amamak esa'utsen:

-Bai, jaune.

Eta medikuek:

-Da astue dekozu ederra!

Eta amamak:

-Bai, da izena deko berorren modukue, Pauliño!

(Begoña Erdoiza)

SATOR HEGALARIAK

Liburuko sorpresetariko bat amaieran dago. Charif Aomar Omar 2007an Iurretan jaiotako mutiko bat da. Maiztegi Herri Eskolan ikasi zuen, baina 8 urte Frantziara (Okzitaniako Castelnaud-d'Auzan herrira) joan zen bizitzera bere familiagaz.

8 urte zituela ipuintxo bat jasotzen da, liburu osoari titulua eta metafora emateko. Euskaldunok ere, gure hizkuntzagaz, hegan egin guran ibili diren satortxoak izan gara.

Bazen behin sator bat hegan egin nahi zuena baina ez zuen lortzen eta bi hego egin zituen baina ez zekien maneatzen. Oihanera joan zen eta suge batekin topo egin zuen eta galdetu zion:

—Zuk ba al dakizu hegoak erabiltzen?

Baina sugeak ez zekien erabiltzen, eta itsasora joan zen eta bale batekin topo egin zuen eta galdetu zion:

—Zuk ba al dakizu hegoak erabiltzen?



'Sator Hegalaria'. (IMANOL LARRINAGA, 2024)

Baina baleak ez zekien erabiltzen, eta mendira joan zen eta arrano batekin topo egin zuen eta galdetu zion:

—Zuk ba al dakizu hegoak erabiltzen?

Arranoak bai zekien erabiltzen eta hegoak erabiltzen irakatsi egin zion.

Hala bazan eta ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Iurretako plazan.

anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

EUSKO JAURLARITZA

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

LAGUNTZAILEAK



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

"Lan guztiak bihotzez egiten ditugu, pasioz"

UDATXO ETA BALU KARTEL EGILEAK

Udatxo eta Balu artistek *Hartzea ematea DA!* lelopean egin dute 59. Azokako kartela, biek batera, elkarlanean. Esperientzia "zoragarria" izan dela azpimarratu dute

Maialen Zuazubiskar KARTEL EGILEAK
Aurtengo kartela bien artean sortu duzue. Zelako prozesua izan da?

Udatxo: Prozesu polita izan da. Azokakoek kartela biok elkarregaz egiteko gonbidapena egin ziguten, eta pozik hartu genuen berria. Elkar ezagutzen genuen apur bat, aurretik elkarrekin lanen bat eginda geundelako, eta prozesua nahiko erraza izan da. Hasieran ideia nondik nora eraman kostatu zitzaigun apur bat, baina behin martxa hartuta dena oso ondo joan zen.

Balu: Elkarrekin egin ditugun lanak eta bakarka egin ditugunak beti gustatu izan dira. Oso



Udatxo eta Balu. DURANGOKO AZOKA

lengoaia iguala dugu. Udatxorekin lan egitea oso erraza da. **Zein izan da kartelaren muina?**

Balu: *Hartzea ematea Da!* lelotik abiatuta, ideia zentral modura zein elementu ipinikoen genuen hasi ginen pentsatzen. Eta biok eskuekin gauzak egiten ditugula ikusita, gure lan tresna eskuak direla ikusita, Udatxok bi esku irudikatu zituen pintzelarekin, eta ni kartelariarekin jolasten hasi nintzen. *Hartzea ematea da!* leloarekin jolasten hasi ginen, Durangok zer eskaintzen dion euskal kulturari eta biztanle-goari.

Udatxo: Gauzak ipini eta kentzen ibili ginen, eta, horrela, azken emaitzara heldu ginen. Gainera, bukaeran konturatu ginen gure konposizioak bihotz forma zuela. Eta ez dakit kasualitatea den ala horrela izan behar zuen, baina konturatu ginen bihotzak lotura handia duela hartu-emanarekin, *hartzea ematea da* horrekin.

Balu: Bihotzarena oso metafora polita da. Egiten ditugun lan guztiak bihotzez egiten ditugu, pasioz.

Pozik geratu zarete emaitzagaz?

Balu: Oso pozik. Kartela bion artearen arteko oso nahasketa polita da. Gainera, garrantzitsuenak da jendeari asko gustatu zaioela publiko egin dugunean. Azokako kartela egitea guri eskatzea oso gauza polita izan zen, baina are politagoa emaitza jendeari gustatzea.

Udatxo: Proposamena egin zigitenean, niretzat oso berezia izan zen, beldur apur bat ere izan nuen. Baina emaitza ikusi genuenean oso pozik geratu nintzen. Gogoia dut azoka heldu eta nolako harrera duen ikusteko. Norberaren lan bat euskal kulturaren plazako kartela izatea izugarria da.

Balu: Niretzat ohore bat da. Durango musikaren eta liburuen plaza da berez, eta, nolabait, gure lanak izan duen oihartzunarekin artea ere sartu dugu Durangoko Azokan. Artelan honekin Azokak beste esparru bat irekitzen duela sentitu dut, eta artea Durangoren moduko plaza batean sartzeta oso gauza positiboa da. Ea hurrengo urteetan ere ahalegin hau egiten den, beste artista batzuei aukera emateko.

Euskararekin,
sortu ginenetik

EROSI
+ BAZKIDE
TOKI
EROSKI



59. DURANGOKO AZOKA
2024ko abenduaren 5etik 8ra



Hemengo
izatea ona da





Jon Irazabal Agirre. GEREDIAGA ELKARTEA

"Azoka eta Gerediaga Jonen bizitza ziren"

Gerediaga Elkartek eta Durangoko Azokak Jon Irazabal gogoan izango dute irekiera ekitaldian; historialari iurretarra Gerediaga elkarteko kudeatzailea izan zen hamarkada luzetan, eta Durangoko Azokako zuzendaria ere izan zen 30 urtez

Aritz Maldonado IURRETA

Hastear den Durangoko Azoka "gazigozoa" izango dela onartu du Itziar Irazabal Jon zenaren arrebak atek zabaldu baino egun batzuk lehenago. Hain zuzen ere, abenduaren 5ean, Azoka Jon barik bisitatuko duen lehenengo aldia izango du Irazabalek, eta gogorra egingo zaiola aitortu du: "Jon abuztuan hil zen, lagun asko oporretan zeudela. Jende askok idatzi zidan,

baina badago jende asko oraindino aurrez aurre egon ez naizena, Azokan ikusiko dudana lehenengoz, eta badakit gogorra izango dela, bai niretzat eta baita Iñaki nebarentzat ere". Hala ere, pozik egoteko arrazoiak ere izango dituela uste du. "Pozik ezin naiz egon, bera ez delako egongo, baina ikusita beragaz gogoratzen zaretela komunikabideetan, Azokan bertan eta abar, harrotasun moduko bat

sentitzen dut. Badago jende bat urtean behin baino ez dudana ikusten, Azokan; Joni buruz galdetuko didate eta horrek barruak irauliko dizkit. Urte askoan, Azoka topagunea izan da guretzat, eta negar asko egingo dugun arren horrela izaten jarraituko du", azaldu du Itziar Irazabalek.

Jon Irazabal historialari iurretarra abuztuan hil zen. Eskualdeko historiaren ikerketan

eta zabalkundean erreferentzia nagusietariko bat zen, eta bere ekiteari eskerrak Durangaldeak asko daki bere historiaz. Gazte-gaztetan hasi zuen Gerediagagaz zuen hartu-emanan, 17 urte zituela. 1982tik 2018ra arte elkarteko kudeatzailea izan zen, eta historia teknikari lanetan jardun zuen gero. Besteak beste, Durangoko Azokako zuzendari lanetan aritu zen 30 urtez. Lana uzteko sasoa ailegatu zitzaionean ere ez zen geldirik geratu. "Jubilatu bai, baina erretiratu ez", erantzunez gogoratu du Itziar Irazabalek.

Hiru hamarkadaz

30 urtek askorako ematen dute bizitza batean. Hain zuzen ere, Jon Irazabalenean ere horrela izan da. "Oso desberdinak dira gaur egun ezagutzen dugun Durangoko Azoka eta Jonek hartu zuena. Orain, Azoka osasuntsu bat ikusten dugu, komunikabideetan saio bereziak egiten dituzte, gehigarri bereziak egiten dituzte, baina Jonek Azokaren urte ilunagoak ere bizi izan ditu", gogoratu du Itziar Irazabalek. Eta, atzera begirata, jasotzen zuen aitortza falta azpimarratu du: "Ez zuen jasotzen aitortzarik, ez erakundeen aldetik ez gizartearen aldetik; aurkezteko garaia ailegaten zenean, ez zuen jakiten komunikabiderik agertuko ote zen, eta politikariak eta agintariak ere ez ziren etortzen. Jonek borroka handia egin zuen Azoka komunikabideetan agertzeko". Urte hauetan guztietan, Jon Irazabalek eskuzabal lan egin du Gerediagarentzat eta Durangoko Azokarentzat. "Gerediagak bulegorik ere ez zuen garai batean, pentsa, gure amak hartzen zuen telefona izena eman behar zenean standa ipintzeko. Telefonoaren

ondoan zeukan koaderno batean idazten zituen datuak. Orain Azokak arrakasta handia du, baina Joni Azoka nondik zetorren eta zelan hasi zen gogoratzea gustatzen zitzaion", gaineratu du Itziar Irazabalek.

Pertsona sortzailea

"Eskuzabala eta sortzailea". Hala gogoratzen du Itziar Irazabalek bere neba. "Beldur apur bat ere ematen zidan 'Ideia bat dut' esaten zidan bakoitzean", dio barre artean. Egitekoen artean, baina, Valladolideko Uruña herria ezagutu ez izanaren penagaz joango zela azaldu du. "Herri txikia da, Erdi Arokoa, harresi bat duena, baina, batez ere, Liburuaren Herria izateagaitik da ezaguna. Garairen moduko herri bat da eta hamar bat liburu denda izango ditu", gaineratu du. "Itziarrek berak ezagutzen du. 'Jonek beti gura izan zuen Durango Liburuaren Hiria izatea, eta industria kulturala bertara mugitzea: argitaletxeak, diskoetxeak, inpretak... bere ametsetariko bat zen hori", azpimarratu du. Hala ere, Azokak egindako garapenagaz harro zegoela nabarmendu du. "Azoka zaindu eta mantentzea da egin ahal zaion omenaldirik onena, horrek euskara, Euskal Herria eta euskal kultura bizirik daukela esan gura du-eta, etorkizuna izango duela, eta horretaz harro egongo zen", azaldu du.

**"AZOKA ZAINTEA
ETA MANTENTZEA DA
JON NEBARI EGIN
AHAL ZAION
OMENALDIRIK ONENA"**

bed's

Benetako atsedena hartu nahi duzu?

Alluitz, 1 Durango
944 005 980 • www.beds.es
durango@tiendasbeds.es

TABIRA COLOR

PINTURA DENDA
Eroskiren aurrealdean gaude

procolor

Sumariak eta konfiantza

TEL.: 94.621.79.11 • ABADIÑO
www.tabiracolor.com



Aholkularitza
fiskala



Kontabilitate-
aholkularitza




Lan-
aholkularitza



Kontu-
auditoretza





Aholkularitza
juridikoa




Merkataritza
eta finantatza

Zumalakarregi Kalea, 18, 1ºA - DURANGO

 688 831 836

 946 818 636

 clientes@gualbiasesores.com

IRUDIENEA

ABENDUAK 5, EGUENA

IKASLE GOIZA

10:30 Eduki digitala euskaraz DA! Solasaldia (Areto handia).

10:30 Bideoklipa DA! Tailerra (Areto txikia)

13:15 Euskal kultura ulertzeko bideoak. Ikusgela. Emanaldi sorta.

14:00 Oreka. Javi Goya. Film emanaldia.

15:00 Baltoro oinez eta hegan. Mattin Iñiguez Ormazabal. Aurre-estreinaldia.

16:00 Errio. Ibon Gaztañazpi. Film emanaldia.

17:30 Momotxorroak - Kaos baten istorioa. Jon Eguskiza, Kepa Otaegi eta Andra Mari Dantza Taldea. Dokumentala.

18:30 Lau elementuak. Geuretik Sortuak. Arriguri "<3", Alba Lozano "Ütlandsk", Aitzol Saratzaga "Ehiza" eta Pette Etxebarria "Oiogorri". Laburren emanaldi sorta.

ABENDUAK 6, BARIKUA

11:00 Nire amaren etxea. Ane Berriotxo. Film emanaldia.

12:00 Bat, bi, hiru kanta. Igoal lau. (#itsaso adabidebakarra sessions). Ines Osinaga, Xerra Estudioa. Estreinaldia.

13:00 Hor Konpon. Jone Arriola. Film emanaldia.

13:30 GAZTE laburmetraDA! Ardiek jakingo dute (June Lasarte), Agur, Maria (Jone Aranberria) eta Goodbye Kepler (Nerea Ayala, Patricia Fañanás, David Modroño eta Iraia Yarto). Film laburren emanaldia.

15:00 Argizagi. Zubiak adiskidetasunerantz. Marramiau Sorkuntza Taldea. Estreinaldia (2023ko Sormen Beka DA!).

16:30 Dena asmatuta dago. Jone Arriola. Film emanaldia.

18:00 Dema S.A. sortzaile amateurren arteko dema. Euskarazko film laburren final handia. Lehiaketa.

ABENDUAK 7, ZAPATUA

11:00 Errekatxo baten onduen. Markel Onaindia. Dokumentala.

12:30 Azken erromantikoak. David Pérez Sañudo. Film emanaldia.

14:30 Prosopagnosia. Ekain Martinez de Lizarduy Film emanaldia.

15:00 Ezki kontu-kontari. Leire Bereikua Barinagarmenteria eta Iban Gonzalez Pagaldai. Telesailaren aurkezpena.

16:00 Puzzleak, Bortxaketaren Jauregia. Kote Camacho eta anonimo bat. Film emanaldia.

16:30 Negu hurbilak. Negu kolektiboa. Film emanaldia.

18:30 Urak eginen du bide. June Agirre, Alex Altuna eta Oier Markotegi. Dokumentala.

19:30 LaburmetraDA! Errotatiba (Iratxe Fresneda), Etorriko da (Izibene Oñederra), Exergo (Jorge Moneo) eta Phantasia (Jorge Moneo). Kimuak katalogoa. Film laburren emanaldia.

ABENDUAK 8, DOMEKA

10:30 Itoitz, udako sesioak. Teaser emanaldia.

11:00 Kuxkuxtu: Parean, Ondoan, Elkarrekin. Arri Iraeta Irigarai. Dokumentala.

12:00 Irabazi arte. EITB. Aurrestreinaldia.

12:30 Loa eta Laia. Bizitzaren melodia. Josu Bergara, Paul Caballero, Paraxut produkzioak Aurrestreinaldia.

13:30 Marea Laranja. Haitz Mendibil eta Ekhi Mendibil. Film dokumentala.

15:00 Central Parkeko Heroiak (Familia zinema euskaraz). Zineuskadigaz elkarlanean. Film emanaldia (Areto handia).

15:30 Korrikalaris. Alejandra Bueno. Dokumentala.

16:30 Oinez. Leire Egaña. Dokumentala.

17:00 Foto Laso. Iban del Campo. Film emanaldia.

18:30 Ibaizabal ikastola: "25 urte geroa hezten". Bideoklip estreinaldia.

'Errekatxo baten onduen' dokumentala ikusteko aukera

'Nire amaren etxea' filma eta Ibaizabal ikastolak sorturiko bideoklipa ere aurkeztuko dituzte Irudienean

A.B. IRUDIENEA

Mendiolako (Abadiño) auzo eskola sortu zenetik 100 urte bete direnean, bertan ibili ziren ikasle eta irakasleen bizipenak batzen dituen dokumentala egin du Markel Onaindia kazetari iurretarrak Bideografik ekoizte-txeagaz batera: *Errekatxo baten onduen*. 1923-1924 ikasturtean zabaldu zuten auzo eskola, Julene Azpeitia eta Feliziana Astorkia maistra zirela, eta Mendiolako eta inguruko auzoetako hainbat ikasle joan zen eskola-

ra alfabetatzeko asmoz, 1987ra arte. Guztira 18 lagunen testigantzak jasotzen dituen ikus-entzunezkoa abenduaren 7an proiektatuko dute. Lehengo eskola zaharrean Errekatxo elkartea dago gaur egun, eta men-

18 LAGUNEN TESTIGANTZAK JASOTZEN DITUEN LANA ABENDUAREN 7AN EMANGO DUTE

diolarren elkargune izaten jarraitzen du.

Nire amaren etxea filma ere emango dute, abenduaren 6an. Carmen 40 urteko emakumea da protagonista Ane Berriotxo zornotzarrak zuzendu eta idatzitako filmean. Ama galdu duen emakumea da. Ez du inoiz hartu eman onik izan amagaz, baina orain, jaiotzen ikusi zuen etxearen bitartez eta amaren azalean jarrita, galdera askori erantzun eta zerbait ulertuko du. Iaz estreinatuko zuten filma.

Bestalde, orain 25 urte sorturiko Ibaizabal ikastolak "Bost bider bost 25" lelopean aurrera eraman duen bideoklipa ikusteko aukera egongo da, abenduaren 8an, 18:00etan. Peio Azkarateren musikagaz eta Ainhoa Olasoren gidaritzapean sortu dute.



'Errekatxo baten onduen' lanak ikasle eta irakasleen bizipenak batzen ditu.



Mañaria

Jendea da herria

946 81 89 98

www.mañaria.eus

"Gaztetako unibertso hura fikziora eraman dut"

MIREN AMURIZA PLAZA IDAZLEA

Miren Amurizak bere bigarren eleberria kaleratu berri du, Susa argitaletxeagaz: 'Pleibak'. Abenduaren 6an aurkeztuko du, Ahotsenea Literatura gunean, 18:00etan

Aitziber Basauri BERRIZ

Miren Amurizaren *Pleibak* liburuak 2000ko hamarkadan lagun egindako neska gazte biren artekoak ditut ardatz. Domekan, Berrizko Kultur Etxean bertso saio literarioa egingo dute. Bestalde, *Anastisini Zirkua* ipuin ilustratua ere aurkeztuko du Malen Amenabarregaz batera Durangoko Azokan.

Zer da 'Pleibak'? Zelan sortu zen?

Guk umezaro guztia pasatu genuen play-back egiten eta entseatzen; kantak ipini eta dantzan egiten genuen. Hortik izenburua, esaten den moduan idatzita. Zer edo zeri buruz idatzi jakin baino lehenago, ahozko erregistrotik ahalik



Miren Amuriza. MIRIAM CARO

eta hurren egongo zen hizkuntza kodigo baten bilaketa nerabilen buruan, kasu honetan nerabeekin bat egingo duena. Horretara hurbiltzeko, hizkuntza zikintzeko eta apurtzeko moduen bila nenbilen. Hori buruan nuela hasi nintzen istorio baten bila, pertsonaien bila. Erregistro linguistiko bat gehiago proposatu gura nuen, ahozkotik hurbil dagoen erregistro literarioa. Musika horren bila sortu zen *Pleibak*.

Basa (2019) eleberrian zaintza eta zahartzea hartu zenituen berbagai. Orain, nerabezaroan murgildu zara.

Istorio desberdin bi dira, baina mundu berean kabitu litezkeenak. *Pleibak*-en neska bi dira protagonista, eta bereziki bat baserri mundutik dator. Unibertso hori hor dago, baina beste begi batzuetatik ikusita. Kontrastean kalea ere oso presente dago: lokalak, gaztetxea, txosnak, tabernak... *Pleibak* nerabe paisaia rural-poligoneroan girotutako lagun biren istorioa da, elkarrengandik oso hurrean eta oso bizimodu estua egitetik zelan hasten den bakoitza bere bizimodua egiten. Lagun arteko haustura bat kontaktzen du, hortxe dago ipinita fokua.

Sasoi baten erretratua dela esan daiteke, belaunaldi bat ordezkatzeko erreferentzia askogaz.

Nire asmoa ez da izan belaunaldi baten argazkia egitea, istorioa ahalik eta ondoen girotzea baino. Kontakizuna 2000ko hamarkadan girotzen ahalegindu naiz, eta hor telebistan ikusten genuena sartzeko da, sasoi hartan entzuten genuena, jaten eta edaten genuena... Pop kulturako erreferentzia asko ere badaude, apropos sarturikoak. Su Ta Gar aipatzen da, baina Chenoa ere bai; Katamalo dago, baina Operación Triunfo ere bai. Izan ere, euskal kulturatik asko jan dugu, baina baita beste kultura batzuetatik ere. Kontakizuna Berrizen dago kokatuta; gure gaztetako unibertso hura eraman dut fikziora.

Domekan, bertso saio literarioa ere egingo duzue Berrizen.

Bai. Kultur Etxean izango da, 12:00etan. Liburuko zenbait testu irakurtzen eta gaiak ipintzen egongo naiz. MICE Miren Narbaizak musika ipiniko du, eta Uxue Alberdik, Nerea Ibarzabalek eta Oihana Bartrak bertsoan egingo dute.

Azken biak!

Elorrion

BETI GERTU!

Begiratu aukerak gure webgunean:
www.zarateyelexpe.com
 Tel.: 946 816 673
 Bixente Kapanaga 19, behea
 48215, Iurreta

Aritz Maldonado DURANGO

Garai batean, lurtarrek planetak elkarren artean konektatzen dituzten argizubiak beste planetak menderatzeko erabiltzen zituzten. Ondorioz, unibertso gainerako biztanleek bakartu egin zuten Lur planeta argizubiak debekatuz. Testuinguru horretan, memoria lanketaren falta jorratzen dute *Argizagi*. Zubiak adiskidetasunerantz istorioan. "Belaulaldi berriek ez dute ezagutzen historia, ez dakite nola iritsi diren bizi duten egoerara". Lur eta Nahi estralurtarrek, debekuari aurre eginez, lurrera bidaiatu eta Izei ezagutuko dute. Hiruren abenturak ikusiko dira telesailean. Laguntasun harreman hori izango da istorioaren ardatza, eta, horrez gainera, ordura arte planeten artean zegoen bake egoera-edo irauliko dute. Premisa horretatik abiatuko da Sormen Beka irabazi duen istorioa. Hamar bat minutuko sei atalek osatzen dute telesaila; atal bakoitzak bere istorio propioa izan arren, trama batzuk orokorrak dira eta sei ataletan zehar aletuko dituzte. "Atalak banaka ikusi daitezke,

"Fikzioa aukeratu dugu guk fikzioa kontsumitzen dugulako"

IHINTZA IRIARTE APEZETXEA MARRAMIAUKO KIDEA

Ihntza Iriartek, Uxue Bereziartuak eta Miren Bereziartuak sortu zuten Marramiau Sorkuntza taldea, iaz; 'Argizubi, zubiak adiskidetasunerantz' lanagaitik Sormen Beka jaso zuten eta aurten aurkeztea dagokie

"NAHIKOA PRESIO IGARRI DUGU, DENBORA BEHAR DELAKO HORRELAKO PROIEKTU BATERAKO"

"NEREA ARRIOLA AKTOREAK, ADIBIDEZ, ASKO LAGUNDU DIGU AHOTSEKIN"

edo jarraian, ordubete inguruko pelikulatxo bat osatuz", azaldu du Ihntza Iriarte Marramiau kideak.

Gogotsu lana aurkezteko? Igarri duzue presiorik?

Iaz hasi ginen proiektu honi bueltak ematen, batez ere Uxue eta Miren. Animaziozko telesail bat egiteko asmoa genuen. Sormen Bekaren deialdia haurrei zuzendutako euskarazko proiektua zela ikusita, horretara bideratu zuten proiektua. Ez genuen espero, baina guri eman ziguten beka. Proiektua fintzen hasi ginen eta urte honetan nahikoa presio igarri dugu, denbora behar delako horrelako proiektu bat egiteko.

Gainera, anbiziotsuak izan gara eta proiektuak guk hasieran uste genuen baino dimentsio handiagoa hartu du. Azken momentura arte gaude gauzak borobildu eta fintzen.

Dimentsio handiagoga diozuean, lantaldea handitzeari buruz ala produktuari buruz zabilta?

Bi aldeetatik. Aukera eman nahi genien sortzaile berriei parte hartzeko. Nik ahotsak jarri ditut eta hau egiten dudana lehenengo aldia da; gainerakoak aktoreak dira, baina ez dakit inoiz bikoizketan jardun duten; Uxuek eta Mirenek ere lehenengo parte hartu dute honen tamainako proiektu batean. Proiektua han-

ditzen joan da aurrera egin ahal; formakuntzarekin-eta profesionalagoen eskutik laguntza jaso dugu. Nerea Arriolak, adibidez, asko lagundu digu.

Euskaraz kalitatezko eduki falta dute umeek. Horrek presioa gehitu dizue sortzerakoan ala aurrekaririk ia ez egoteak askatasuna eman dizue?

Esango nuke askatasuna eman digula. Euskarazko animazioa egon badago, baina kanpotik ekartzen dutena. Beraz, hutsune hori bete nahi genuen euskaraz egindako animazio batekin, Euskal Herrian sortua eta Euskal Herriko publikoarentzat. Beraz, askatasunez hartu genuen; eta erreferentziak, adibidez, euskal



2024KO AZAROAREN 11tik ABENDUAREN 21era

ERAMAN 100€-RA ARTE ZURE ERREGAI, AMAZON EDO EL CORTE INGLES-EKO EROSKETETARAKO

Sustapen balioduna ibilgailu, SUV, 4x4 eta furgonetako Goodyear pneumatikoak erosi eta muntatzeagatik. Kontsultatu sustapenaren legezko oinarriak hemen: [PREPARADOPARAELINVIERNO.GOODYEAR.ES](https://www.goodyear.es/preparadoparaelinvierno)

Murrizketak aplikatzen dira. Ikusi xehetasunak hemen: [amazon.es/chequesregalo-condiciones](https://www.amazon.es/chequesregalo-condiciones).

Neumáticos Etxebarria

GOOD YEAR

	UDA		AS&W	
	x2	x4	x2	x4
LT-17"	20€	40€	20€	50€
18"-19"	35€	60€	40€	80€
≤ 20"	45€	90€	50€	100€

2024ko azaroaren 11tik abenduaren 21era



AMAYA

AUTOEN KONPONKETAK S.L.

UAI, 1 industrigunea (Orozqueta errepidea)
48215 IURRETA / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango

ofizinalako telefonoa: 682296161
tallerreko telefonoa: 646762022
e-maila: oficina@amayaautoreparaciones.com
www.amayaautoreparaciones.com

DIBA

K O O P E R A T I B A

Durangaldeko Baserritarren Elkarte

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92



Ihintza Iriarte Apezetxea, Miren Bereziartua Lonbide eta Uxue Bereziartua Lonbide. MARRAMIAU

publikoak hartzeko modukoak hartu ditugu. Beraz, bai, askatasunetik hartu dugula esango nuke. Egia esan, orain sentitzen dugu presio apur bat, erreferentziak ulertuko ote diren.

Zientzia-fikziozko animazio telesail bat da Zubiargi. Fikzioak erraztu egiten du pedagogia egitea?

Fikzioa aukeratu dugu gu ere oso zaleak garelako. Istorioa girotzeko, unibertso oso bat

irudikatu ahal izan dugu, unibertso paralelo bat, eta planeten artean ibiltzen dira protagonistak, baina errealitatearen kutsu handia du, azken finean, funtsean Lur planetan garatzen delako

istorioa. Guri, funtsean, zientzia-fikzioa kontsumitzea gustatzen zaigu. Protagonista ere Lur planetakoa da, eta gertakariak ulertu daitezke.

Marramiau bezala, lehenengo proiektua duzue elkarregaz?

Bai. Uxue bere aldetik ilustratzailea da; besteak beste, Pakita Studio sormen tailerrak ere ematen ditu. Miren soinua munduan dabil lanean, eta zenbait proiektutan parte hartu dute; adibidez, *Belarri bero, bai esan?* telesailean. Marramiau bezala hirurok elkarrekin egin dugun lehenbizikoa da, eta animaziozko telesail bat egitea aukera ona iruditu zitzaigun Mirenen soinua, Uxueren irudiak eta nire ahotsa batzeko.

Horrelako proiektuak bultzatzeko, zein neurritan dira beharrezkoak diru laguntza hauek?

Proiektu hau orain egiten ari bagara, diru laguntza honengatik da. Beharbada, aurrerago ere egingo genuen gure aldetik, baina momentu honetan, horrelako epeekin eta horrenbesteko babesarekin egin behar. Dirua edukitzeak erraztasun batzuk ematen dizkizu; adibidez, estudio profesionaletara joan gara grabatzera;

langileei ondo ordaintzen saiatu gara, eta horrek produktua kalitatea handitzen lagundu du. Horrelako diru laguntzak beharrezkoak dira horrelako proiektuak egin ahal izateko.

la urtebeteko lanaren ondoren, proiektua aurkezteko garaia heldu da.


Bai, Durangoko Azokan bi proiektzio egingo ditugu, abenduaren 6an. Alde batetik, ofizialki, 11:00etan aurkeztuko dugu, Sargunganbaran; bestalde, 15:00etan Irudienean aurkeztuko dugu.

"AUKERA ONA IZAN DA UXUEREN IRUDIA, MIRENEN SOINUA ETA NIRE AHOTSA BATZEKO"

"ISTORIOA GIROTZEKO, UNIBERTSO OSO BAT IRUDIKATU AHAL IZAN DUGU, UNIBERTSO PARALELO BAT"



disfruta
BIZKAIA



Non jan, zer egin eta non lo egin Bizkaian



@disfrutabizkaia

www.disfrutabizkaia.com



Bizkaiko Ostalaritza
Elkartearen webgune
turistikoa.





Itziar Ituñoren Ingot taldea hainbat artista kurdorekin entsetzen. SUARGI

Azoka, Kurdistango eta Euskal Herriko kultur gileen topalekua

Herri kurduak eta Euskal Herriak kultur gintzaren bitartez lotura estutzeko aukera izango dute Azokan. Liburu aurkezpena, solasaldia eta kontzertua egongo dira

Ekaitz Herrera DURANGO

Euskal Herriko eta Kurdistango sortzaileek bat egingo dute Durangoko Azokan. Izan ere, hiru ekitaldiz osaturiko egitaraua prestatu dute abenduaren 7rako. Lehenengoa *Kurdistan+100* liburuaren aurkezpena izango da. Ekimenaren bultzatzaileek azaldu dutenez, hamahiru idazle kurduri istorio batzuk idazteko erronka ipini zieten, Kurdistan independente izan zen garaitik ehun urtera girotu beharrekoak. Hau da, Kurdistaneke errepublika izan zuen 1946 aldera, eta liburuak 2046. urte bueltan girotutako kontakizunak jasotzen ditu. Liburuaren aurkezpena 14:30ean izango da.

Arratsaldean, Euskal Herriko eta Kurdistango kultur gileen solasaldia egingo dute, 16:30ean, Talaia-Durangoko Museoa. Suargi elkarte Jon Landabidea izango da aurkezlea, eta Berria egunkari Arantxa Iraola moderatzailea. Pertsona hauek parte hartuko dute solasaldian: Sevinaz Evdike zuzendari kurduak, Michael McCoughan idazle eta kazetari irlandarrak, Kiera Henderson itzultzaileak,

Meral Simsek idazle kurduak, Jin Swani idazle kurduak, Roberto Awanari musikariak eta Joseba Sarrionandia idazleak. Eguneko egitaraua borobiltzeko, kontzertua antolatu dute Plateruenean. Durangok aspalditik du lotura Kurdistanezagaz. Izan ere, Durango eta Kobane (Siria-ko Kurdistan), 2017an senidetu ziren. "Estatu Islamikoaren eskuetatik askatu zen lehen hirietariko bat da Kobane eta faxismoaren aurkako borrokan erreferente gaurkotu bat bilakatu da azken urteotan", azpimarratu dute Suargiko kideek.

Kontzertu bi antolatu dituzte; bata Ahotseneako oholtzan izango da (20:30ean), eta bestea Kobanen, hiria askatu zuten hamargarren urteurreneko ospakizunetan. "Proiektuko kide ugari ditugu jada Euskal Herrian kontzertuan abestuko dituzten lanak grabatzen", azaldu dute elkarte kideek. Talde eta musikari hauek arituko dira Plateruenean: Ingot (+ Janire Egaña), Ines Osinaga, Azibar Terreros -Danel Orueta (Txalaparta), Mizgin Tahir, Onur Kepene eta Yado Uzun.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#SALDU ENAK

1# HETERO
Uxue Alberdi
Susasa

2# BIHOTZ-MUSEO BAT
Leire Vargas
Elkar

3# LILURAREN KONTRA
Martin Arbeo
Txalaparta

4# BERBELITZEN HIZTEGIA
Anjel Lertxundi
Alberdania

5# FRANCISCO PASQUALEN BOSGARREN ARIMA
Unai Elorriaga
Susasa



tabiraberezi
Telekomunikazioak
Informatika

f i in

Pol. Ind. Aliendalde 11F
48200 Durango
94 681 22 04

info@tabiraberezi.com
www.tabiraberezi.com



pablo zubizarreta
fisioterapia & osteopatia

Muretatorre, 2D - 48200 Durango
pzubizarreta@gmail.com
Tel.: 946 550 049 / 695 784 963

NACEX

INFORMAZIO OROKORRA
900 100 000
nacex.es

Mezularitza-enpresa
Paketeak prezio eskuragarrietan bidaltzen ditugu.
Kontsultatu konpromisorik gabe.

San Roke, 10-12 etxeba DURANGO
Tel: 946 200 162 | e-maila:4810.operativa@nacex.es

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak



Betikoak
flexografia

946 202 241
Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

2025

Durangaldeko egutegia

LEKUAN LEKUKO EGUTEGIA

3€

Abendua

1 2 3 4 5 6 7
8 9 10 11 12 13 14
15 16 17 18 19 20 21
22 23 24 25 26 27 28
29 30 31

ANDRAMARI
ZORNOTZAKO IKASTOLA
Ook 18 urtera arte

0 eta 1 UETERO Matrikula
URTE OSOAN ZABALIK
EZAGUTU IKASTOLAI

DA!
Durangaldeko standean sagai

f Anboto Komunikabideak X @anboto @anbotokomunikabideak anboto.org

OHIKO SALTOKIETAN SALGAI

ABADIÑO

Petite eta Abadiñoeko estankoa

ATXONDO

Kiosko Atxondo eta Itziar taberna

BERRIZ

Egun on okindegia

DURANGO

Etxebarria prentsa denda
eta Hitz liburudenda

ELORRIO

Txokolat

GARAI

Herriko taberna

IURRETA

Iurreta kopistegia

IZURTZA

Herriko taberna

MAÑARIA

Herriko taberna Talka

MALLABIA

Herriko taberna

OTXANDIO

Korostondo janari denda

ZALDIBAR

Imendia prentsa denda

ZORNOTZA

Ayerdi prentsa denda

GAZTE EZTANDA!

ABENDUAK 6, BARIKUA

14:00 Landako plazako karpa. Egin EztanDA! Lehiaketa (Izen ematea bertan egunean, 12:00etatik aurrera, 15etik 25 urtera arteko gazteentzat) Gerediaga Elkarte eta EuskarAbentura

22:00 Landako plazako karpa. Kontzertuak: Nekktar, Naxker eta Xaukena Xauk.

KABI@

ABENDUAK 5, EGUENA

IKASLE GOIZA

10:30 Gamer Gela. Game Erauntsia + Rolariak Topaketa.

16:00 Gamer Gela. Game Erauntsia + Rolariak Topaketa.

ABENDUAK 6, BARIKUA

16:00 Adimen Artifizial sortzailea? Elhuyar. Mahai-ingurua.

16:40 Torrekua - Teknologia libreak sortzeko, sustatzeko eta saretzeko sormen espazio komunitarioa.

Torrekua ekimena. Egitasmo aurkezpena.

17:00 Begizta. Izarkom + Onaro. Aurkezpena.

17:30 Margo Piratak. Eider Eibar eta Iskander Sagarminaga. Egitasmo aurkezpena.

17:50 Egin Ttap! Kukulaisi + Euskaltzaleen Topagunea. Topaketa.

18:30 Erronka digitalak. Nola garatu erabilera kritikoa? Ikusgela eta Badalab. Mahai-ingurua.

19:40 Leitzako hitanoa berpizten: Hika eta toka. Noka ere toka! Fernando Oiartzun. Egitasmo aurkezpenak.

SZENATOKIA

ABENDUAK 5, EGUENA

IKASLE GOIZA

10:30 Antzerki sorkuntza partekatzen inprobisazioaz! Tailerra.

19:00 "Hartzea ematea DA!" Gerediaga Elkarte. Inaugurazio ekitaldia.

ABENDUAK 6, BARIKUA

11:30 Hurrengo geltokia. Karrika Antzerki Taldea. Antzerkia.

12:30 Putaren bakarrizketa eroetxean. Laura Penagos. Antzerkia.

16:00 Hurrengo geltokia. Karrika Antzerki Taldea. Antzerki.a

16:30 Putaren bakarrizketa eroetxean. Laura Penagos. Antzerkia.

17:00 Ztandp, binakako bakarrizketa. Mirari Martiarena eta Idoia Torregarai. Bakarrizketa.

ABENDUAK 7, ZAPATUA

11:00 Odola. Las paralelas. Antzerki performatiboa.

11:30 Hirurak telefonoari begira. Gehibat. Antzerkia.

12:30 Ontziratuak. Libe Mendizabal eta Zalao Zamarreño. Antzerkia.

16:00 Hirurak telefonoari begira. Gehibat. Antzerkia.

16:30 Odola. Las Paralelas. Antzerki performatiboa.

16:30 Hirurak telefonoari begira. Gehibat. Antzerkia.

17:00 Ontziratuak. Libe Mendizabal eta Zalao Zamarreño. Antzerkia.

ABENDUAK 8, DOMEKA

11:00 Fikziohesioa. Kalte kolektiboa. Antzerkia.

12:30 Ez mundu berri bat. Makur antzerkia. Antzerkia.

13:00 The Question. Ganso & Cia. Antzerkia.

16:00 Zori-ona. Adiera. Dantza.

16:30 The Question. Ganso & Cia. Antzerkia.

17:00 Fikziohesioa. Kalte kolektiboa. Antzerkia.

Atxondo
Abenduak 1

XXVII. ARTISAU ETA NEKAZAL AZOKA
Produktuen erakusketa eta salmenta

atxondo

kutxabank

BIZI TZEKO HEZI

KURUTZIAGA
IKASTOLA



ESKAINZA

0 urtetik 18 urtera
bitarteko hezkuntza
eskaintza



HELBURUAK

Ikasle eleanitz,
kritiko eta
euskaldunak



ELIKADURA

Jantoki
Eko-Arduratsuaren
ziurtagiria.
Bertokoa, ekologikoa
eta sasoikoa.



AHOTSENEA

ABENDUAK 5, EGUENA

IKASLE GOIZA

AHOTSENEA LITERATURA

- 11:00** Badok musika ataria; irakasleentzako aukerak. Solasaldia.
- 12:00** Pentsamendua gazte hizkeratik. Tailerra.
- 16:00** Euri gorriaren azpian. Asier Serrano. Liburu aurkezpina.
- 16:30** Kepa Anabitarte. Eneko Bidegain. Liburu aurkezpina.
- 17:00** Iñaki Perurena. Harria bidelagun. Fermin Erbiti. Liburu aurkezpina.
- 17:30** Herriaren hezkuntza eta demokrazia. Nadezhda Krupskaja. Liburu aurkezpina.
- 18:00** Zapalduon pedagogia. Ane Ablanedo. Liburu aurkezpina.
- 18:30** Gurpilak. Eztizen Artola. Liburu aurkezpina.
- 19:00** Aberriaren inpaseak. Joseba Zulaika. Liburu aurkezpina.
- 19:30** Harrizko errementariak. Itzalen Dama eta Patxi Bakallu. Liburu aurkezpina.

AHOTSENEA MUSIKA

- 10:30** Popperra, Aterra, Utopia. Emanaldia.
- 15:40** Birkit. Erosen heriotzak.
- 16:50** Eneritz Furyak. HHH.
- 18:00** Postal kolezionistak. Ezusteko kantak: errinozerontea.
- 19:10** Aho zakil konexion. Amaiur.
- 20:20** Ameba. Munduari.
- 21:30** EIDER. Nola aldatu gara?

ABENDUAK 6, BARIKUA


AHOTSENEA LITERATURA

- 11:00** Hiri gerra Palestinan. Eyal Weizman. Liburu aurkezpina.
- 11:30** Egunen akabera. Garazi Albizua. Liburu aurkezpina.
- 12:00** Hetero. Uxue Alberdi. Liburu aurkezpina.
- 12:30** Idazketa labana da. Annie Ernaux. Itz: Leire Lakasta. Liburu aurkezpina.
- 13:00** Murmur. Ane Labaka eta Raquel Samitier. Liburu aurkezpina.
- 13:30** Bisita. Mikel Pagadi. Liburu aurkezpina.
- 14:00** Irakurketaren aldeko manifestua. Irene Vallejo eta Fernando Rey. Liburu aurkezpina.
- 16:00** Lehendakariaren alaba. Iñaki Petxarroman. Liburu aurkezpina.
- 16:30** Itsaso Amniotikoa. Oihane Jaka. Liburu aurkezpina.
- 17:00** Puntobobo. Itxaso Martin. Liburu aurkezpina.
- 17:30** Epilogorik gabe. Elena Sanchez. Liburu aurkezpina.
- 18:00** Pleibak. Miren Amuriza. Liburu aurkezpina.
- 18:30** Lima. Konjuruliburua. Miren Gorrotxategi. Liburu aurkezpina.
- 19:00** Denboraren zubia. Iñaki Iturain. Liburu aurkezpina.
- 19:30** Zenbaki gorriak. Jon Arretxe. Liburu aurkezpina.

AHOTSENEA MUSIKA


- 11:00** Ainke. 10 gezur eta hiru litro.
- 12:10** Mikel Artieda eta Leire Berasaluze. Miretsiz.
- 13:20** Maskak. Buruz buru.
- 14:30** Nize. Gaur ez naiz.
- 15:40** Zinkha. Gau hartan.
- 16:50** Mirari. Mundu berria.
- 18:00** Albina Stardust. Izar.
- 19:10** Kai Nakai. Gau pasa.
- 20:20** Hok Ttuk Amalau. Lendabisico EP-a.
- 21:30** Xsakara. Ilargiaren semea.

**FAMILIA
GARA**




Elkarbanatuz,
eikarlanean.

**KONPROMISOA
GARA**



Gure inguruarekiko
eta munduarekiko.

**HEZKUNTZA
GARA**




Aktiboak, berritzaileak,
inklusiboak eta humanistak.

DURANGO

GA RA

Eraginez,
sortzaileak izanez.

**BESTEENTZAT
ETA BESTEekin,
GURE MISIOA
PERTSONEN
ZERBITZURA**



ABENDUAK 7, ZAPATUA

AHOTSENEA LITERATURA

- 11:00** Anastasini zirkua. Malen Amenabar eta Miren Amuriza. Liburu aurkezpena.
- 11:30** Euskal Herriko greba feministak: diskurtsoaren analisia feminismo materialistatik. Uma Ulazia. Liburu aurkezpena.
- 12:00** Politeismo bastarta. Jule Goikoetxea. Liburu aurkezpena.
- 12:30** Idaztea gibelera zenbatzen ikastea da. Hasier Larretxea. Liburu aurkezpena.
- 13:00** Gu. Tupust. Liburu aurkezpena.
- 13:30** Ezer ez dago utzi nuen lekuan. Itziar Otegi. Liburu aurkezpena.
- 14:00** Kurdistan + 100. Kiera Handerson. Liburu aurkezpena.
- 16:00** Mendeku eskubidea. Ernesto Prat. Liburu aurkezpena.
- 16:30** Coca-cola bat zurekin. Beñat Sarasola. Liburu aurkezpena.
- 17:00** Basokoa. Izaskun Gracia. Liburu aurkezpena.
- 17:30** Botere handi batek. Iban Zaldia eta Julen Ribas. Liburu aurkezpena.
- 18:00** Bihotz-museo bat. Leire Vargas. Liburu aurkezpena.
- 18:30** Zebrak eta bideak. Nerea Loiola. Liburu aurkezpena.
- 19:00** Bernart Etxepare 1545. Danserie Ensemble. Disko aurkezpena.
- 19:30** Etxauz. Pantzo Hirigai. Liburu aurkezpena.

AHOTSENEA MUSIKA

- 11:00** Orhi. Izarrik ez.
- 12:10** Zinkha. Gau hartan.
- 13:20** Ekhi Lambert & Haize Carricaburu. Inbasioak.
- 14:30** Kokein. Bidea da helmuga.
- 15:40** Txopet. Ostabe zuloan.
- 17:20** Neu Troia. Arriskuaren xarma.
- 18:00** Kaskezur. Deus.
- 19:10** TOC. Ametsen batean.
- 20:20** Ezpalak. Gatza.
- 21:30** Odei Barroso eta Benizze. Badok 15 urte.
- 22:30** Mugarik gabe – Bê Sinôr. GKE Suargi elkarte eta Berria.

ABENDUAK 8, DOMEKA

AHOTSENEA LITERATURA

- 11:00** Josefa neskame. Alaitz Melgar. Liburu aurkezpena.
- 11:30** Biharraren hegietan. Maddi Sarasua. Liburu aurkezpena.
- 12:00** Munduko Poesia Kaierak. Anne Hebert, Giorgos Seferis, Manuel Vazquez Montalban, Jacques Prevert. Liburu aurkezpena.
- 12:30** Ganbila bilduma: Ximun Fuchs 'Lurrez estali', Lutxo Egia 'Guardasol gorria', Mikel Ayllon 'Hau ez da gerra bat', eta Pablo Barrio '2074'. Liburu aurkezpena.
- 13:00** Puf. Alaia Martin. Liburu aurkezpena.
- 13:30** Martin Martina. Amancay Gaztañaga. Liburu aurkezpena.
- 14:00** Masusta-erreximenta. Ekaitz Bergaretxe. Liburu aurkezpena.
- 16:00** Azken portuko postdatak. Asel Luzarraga eta John Andueza. Liburu aurkezpena.
- 16:30** Elkanoren herriari bueltaka. Julen Gabiria eta Ander Izagirre. Liburu aurkezpena.
- 17:00** Ez-izan. Jon K. Sanchez. Liburu aurkezpena.
- 17:30** London Calling. Goio Ramos. Liburu aurkezpena.

AHOTSENEA MUSIKA

- 11:00** Xabaltx. Norabide xuriak.
- 12:00** Saji. Amuak.
- 13:20** Kuartz. III
- 14:30** Xabier Badiola. Xabier Badiola.
- 15:40** Tu-k. Tuka esaten da.
- 16:50** Keia. Zamalanak.
- 18:00** Ander Erzilla. Durundi.
- 19:10** Miriam Lujua. Lur.

ESKAINITZA IZARRA

Sofa eraisgarria +
135 x 190 zm-ko koltxoi
biskoelastikoa.



395 €
(33 € hilabetean)

12 hilabete
interesik
gabe

Colchonerías
Bengoa

www.colchoneriasbengoa.com
info@colchoneriasbengoa.com

Frai Juan Zumarraga, 19 (Durango) - 944 650 859
San Pedro, 35 ezk. Ixerango (Zornotza) - 946 855 662

Eramatea, muntatzea eta altzari zaharrak kentzea DOAN

anboto
kide



Anbotokideen
txokoa

ABENDUKO ZOKKETAK



Hotel Balneario Areatzan gau bat, logela bikoitza, gosaria eta zirkuitu termala bi lagunentzat.



Basa Take Away jatetxean gastatzeko 25 euroko bonua.



Xiberu tabernan bi gosari bikoitz. Zornotza.

*Zokketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

IRABAZLEAK

Errigora otzara:

Eneritz Larrazabal Irazu.

Hotel Balneario Areatzan logela eta zirkuitua:

Unai Uribarri Artabe.

Xiberu tabernan gosari bikoitza:

Arantza Zabela Maiz eta

Jasone Zenikaonandia Otzerinjauregi.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

Egin zaitetz Anbotokide
eta parte hartu gure
zokketetan!



"Helduek umeei irakurtzeko ipuinak dira"

JON ANDER URKIAGA EGIDAZU (ZORNOTZA, 1987) IDAZLEA ETA IRAKASLEA
Helduentzako poesia eta narratiba landu eta gero, Urkiaga idazle zornotzarrak umeentzako literaturari heldu dio orain 'Baziren behin... Hiru ipuin' liburuagaz

Joseba Derteano ZORNOTZA

Bere umeekin partekatzen dituen irakurketa saioek inspiratuta, urteetan buruan bueltaka ibili dituen ideiak hiru ipuinetara ekarri ditu. Ilustrazioak Asier Iturralde 'Gaston'-enak dira. Biak Saguganbaran egongo dira, abenduaren 7an.

Poesia liburu bi lehenengo, eleberria hurrengo, eta umeentzako ipuin liburu orain. Zergaitik umeentzako liburu?

Beharbada azkenaldian umeentzako liburuak irakurtzen nabilelako batez ere. Etxean txikiak ditugu, eta oheratu aurretik irakurtzen dudana normalean ez da izaten nire zaletasunetik aukeratutako zerbait, ezpada umeei irakurtzeko zerbait. Eta kontua da oso sorkuntza ederrak daudela haurrei zuzenduriko lanen artean eta oso gustura irakurtzen ditudala. Beraz, azken urteetan, idazterakoan ere haurrekin lotura duten ideia gehiago izaten dut buruan, beste era batekoak baino.

Hiru ipuinek osatzen dute liburu berria. Emango dizkiguzu hiru ipuinetako bakoitzaren zertzelada batzuk?

Hiru ipuinak elkarrengandik desberdinak dira, planteamenduan bai behintzat. Baina badago batzen dituen hariren bat. Ez nahita, baina alegia kutsuko hiru ipuin irten dira azkenean. Irakurleak ez du aurkituko inolako esperimenterik edo berrikuntza asmorik. Oso estilo klasikoan idatzita daude; betiko ipuinak dira, edozein iloba, guraso eta aitita-amamak ipuintzat identifikatuko litzuzkeen testuak dira. Liburuaren izenburuak berak ere ematen du horren arrastoa. Lehenengo ipuinean, adibidez, errima bidezko elkarrizketek pisua dute; bigarrenak gozotasunetik duela esango nuke; eta hirugarrenak ahalegin handiagoa eskatuko dio irakurleari, ipuinak dituen



Jon Ander Urkiaga Durangoko Azokan salgai egongo den liburu eskuetan.

"IPUINAK TXIKIEKIN MOMENTU GOZO ETA INTIMOA IGAROTZEKO AITZAKIA ESKAINTZEA GURA NUKE"

geruzak helarazteko haurrari. Izan ere, liburuaren gakoetari-ko bat hortxe dagoela esango nuke; helduek umeei irakurtzeko ipuinak direla esango nuke, eta gura nuke ipuinak etxeko txikiek momentu gozo eta intimo bat igarotzeko aitzakia eskaintzea. Hori lortuz gero, liburu honek bete du bere egin-kizuna.

Zelan aldatzen da idazle baten lana nagusientzat ala umeentzat idatzi?

Esan gura dudana hori aldatzen da, eta baita esateko modua ere: erabiliko ditudan berbak, esaldiak... Baina idazterakoan ipuina dut buruan, edo poema edo eleberria, eta idazten nabilen horregaz gustura geratzen ahaleginduko naiz. Buruan bueltaka dudana ahalik eta modurik egokienean islatu gura dut paporean. Eta langintza hori, asebeteta geratzeko saiakera hori,

bere horretan mantenduko da haurrentzat, gazteentzat zein helduentzat idatzi. Eta esango nuke gakoetariko bat zintzotasun horretan dagoela.

Ipuinak ilustrazioekin lagunduta daude.

Asier Iturralde 'Gaston'-ek egin ditu irudiak, eta nik kontrako-rik esatea itsusi geratuko litzatekeen arren, benetan diot ederrak iruditu zaizkidala ilustrazioak. Niretzat liburu opari bat izan da alde horretatik, ikaragarri poztu nintzen lehenengo zirriborroak ikusi nituenen. Berbak neureak dira, baina jantzia Asierrek josi du, eta alde handia da biluzik ibili edo dotore jantzita ibili. Liburuan zehar, momentu batzuetan irudiek adierazten dute berbaz adieraztea gatx egin zaidana, eta hori zoragarria da.

Biak Saguganbaran egongo zarete, abenduaren 7an, 18:00etan. Zein da plana?

Ordu erdiko tartetxo bat izango dugu, eta nik ipuinen bat irakurri ahala Asierrek ilustrazioak sortzea da asmoa, eta bertaraten direnek momentuan bertan pantaila batean ikusi ahal izatea irudiok.

"Beti gustatu izan zait itzulpenak egiteko jolasa"

AMAIA EGIDAZU ARRUBE IDAZLEA ETA ILUSTRATZAILEA

Amaia Egidazu idazle eta ilustratzaile durangarrak bere lehenengo lana itzuli du: 'Itsaso gazian'. Abenduaren 7an, zapatua, aurkeztuko du, Saguganbaran

M.Zuazubiskar HAUR LITERATURA
'Por la mar salada' lana itzuli duzu, eta 'Itsaso gazian' bihurtu. Zer da eta nori zuzenduta dago?

Urte bi inguruko umeei zuzenduta dago. Bueno, 0 urtetik aurrerako umeentzat prestatutako liburutxo bat da. Itsasoa da gaia, eta itsaso barruan zein kanpoan gauez topatu ditzakegun animaliatxoak daude. Umetxo bat itsasoan zehar doa, ilargiagaz olgetan, eta animaliekin topo egiten du.

Lanak testu errimatua du, errimak ditu estrofatoetan, eta, beraz, erritmoa eta musikalitatea ditu. Oso egokia da ume txikientzat. Gainera, kartoizko



Amaia Egidazu Landako gunean.

orrietan eginda dago eta oso aproposa da umeek eurek manipulatzeko, esku artean izateko, jolasteko eta gozatzeko.

Lana itzultzeaz gainera, doinua ere ipini diozu.

Lan originalak ez zekarren doinurik. Niri gaztelaniaz bidali zidaten testua. Egia esan, joera dut adin txikikoentzako lanetan doinuak, musika eta kantak sartzeko. Eta horrela asmatu nuen doinu hau, baina ez dakit beste hizkuntzetan doinua erabiliko duten. Lana gaztelaniaz, katalanez, galegoz eta euskaraz kaleratu da.

Zelakoa izan da itzulpen eta sortze prozesua?

Itzulpena bera gaztelaniaz jaso nuen. Izenburua *Por la mar salada* da, eta izenburu horrek gaztelaniaz beste esangura bat ere badu, euskaraz ez duena. Beraz, itzulpena egiterakoan ezin duzu literal-literal egin. Euskaraz pentsatu eta euskaraz zelan sortuko genukeen pentsatu behar izan dugu, horixe izan da gure abiapuntua. Itzulpena egiterakoan askatasuna izan dut; azken batean, gure hizkuntzagaz bat datorren zer-

bait izan behar zen. Profesionalki egin dudan lehenengo itzulpena izan den arren, irakurle taldeetarako askotan egiten dut hori. Nire lagunek ere ondo dakite; parrandan irteten nintzen bakoitzean dena euskaratzen nuen. Betidanik gustatu izan zait itzulpenak egiteko jolasa, bai hizkuntzagaz bai musikagaz.

Eta doinuaren sortze prozesuari dagokionez, barrutik irteten zait. Sarri egiten dudan gauza bat da. Askotan erabiltzen ditut erritmo eta errimadun gauzak.

Zelan jaso zenuen lan hau egiteko berria?

Berez, aurretik inoiz ere ez dut honelako lanik egin. Pamielako kide Karmenek lan hau egiteko nigan pentsatu zuela jakiteak asko poztu ninduen. Niretzat erronka polita izan da, asko disfrutatu dut.

Gainera, lanaren egileak Nieves Garcia idazlea eta Marina Gibert ilustratzailea izatea eta euren lan bat euskaratzea berezia izan da niretzat, biak ala biak ibilbide polita egin duten emakumeak direlako.



"Irakurzaletasuna bultzatzea da helburua"

ITXASNE ARABIOURRUTIA LASPEÑAS SAGUGANBARAKO ARDURADUNA

Etxeko txikiek euskal kulturaz gozatzeko aterpe berezia dute Durangoko Azokan: Saguganbara. Itxasne Arabiourrutiak (Elorrio, 1998) gune horren ardura du

Aitziber Basauri DURANGO

Umeak eta gazteak euskal kulturara gerturatzeko aukera emango du Saguganbarak, 2024ak haur eta gazte literaturan ekarritako uzta ezagutzeko plaza ezin hobea bilakatuta. Abenduaren 5etik 8ra bitartean, hainbat aurkezpen eta ekitaldi batuko du, Durangoko Berbaro euskara elkartearen eskutik.

Saguganbarak Durangoko Azokaz batera zabalduko ditu ateak. Zer topatuko dute bertara doazen bisitariak?

Umeak, gazteak eta familiak kulturara gerturatzeko gunea da Saguganbara, eta bertara doazen bistariak haur eta gazte arloan argitaratu diren euskarazko sormen lanak aurkituko dituzte. Horrez gainera, ipuin kontaketak, liburu aurkezpenak, ikuskizunak, pailazoak, tailerrak, iazko Sormen Bekako irabazleen proiektzioa... Irakurketa libre-rako denbora ere emango du, ekitaldirik ez dagoen tarte horietan. Horretarako, aurtengo nobedadeak eta iazko lan gomendagarriak egongo dira eskura. Ume eta gazteei zuzenduriko euskarazko ekoizpena ezagutaraztea da helburua, eta, era berean, irakurzaletasuna bultzatzea eta umeak eta gazteak euskal kulturara hurbiltzea.



Itxasne Arabiourrutia.

Durangoko Azokaren barruan oso finkatuta dagoen gunea da.

Sortzailearen edo ekitaldiaren arabera, jende gehiago edo gutxiago etortzen da, baina, orokorrean, ekintzek oso harrera ona izaten dute. Une oro dago norbait. Uste dut familia guztiek dutela buruan Saguganbarara ostera egitea. Askorentzat nahitaez bisitatu beharreko gunea da. Pailazoak eta ipuin kontalariak batzen dute jenderik gehien.

Zeintzuk dira aurtengo nobedadeak?

Hainbat argitalpen berri dago. Horien artean, Amaia Egidazuren *Itsaso Gazian*, Peru Magdalenaren *Lo-kantak* eta Eider Eibarren *Kokoak* aipatuko nituzke. Yolanda Arrietaren *Gutunak birramamari* eta Antton Kazabonek argitaratu emandako *Amestoki goxoa*, *Elbiria Zipitria andereñoa* eta *Nire musika-kutxa* argitalpenak ere izango ditugu, besteak beste. Idazleak ez ezik

ilustratzaileak eta artistak ere etorriko dira.

Beste zeintzuk ekitaldi nabarmen-duko zenituzke?

Badaude urtero jende asko erakartzen duten ekitaldiak ere. Pirritx, Porrotx eta Marimototsek, Potx eta Lotx pailazoak eta Ene Kantak taldeak egindako aurkezpenak, adibidez. Horrez gainera, Julian Rodriguezek *Txanogorretxu* argitalpena aurkeztuko du, gorren komunitateari ikusgarritasuna ematen dion lana; Nerea Ariznabarretak eta Maite Rosendek *Mamuki* aurkeztuko dute, Etxepare Saria irabazi duen liburu. Bestalde, Berbaro elkarteak Durangaldeko Mankomunitateagaz batera sortu duen *Txalopin Txalo* kantu liburu aipatuko gura nuke, familia bidezko transmisioa bultzatu gura duen argitalpena. **Irakurzaletasuna bultzatzeko, Berbaro elkarteak Haur eta Literatur Aretoa ere antolatzen du, hainbat ikasleren parte hartzea izaten duen proiektua.**

Halaxe da, bai. Aurten 4.945 ikasle parte hartu dute, Durangoko, Elorrioko, Berrizko, Zaldibarko eta Zornotzako ikastetxeetakoak. Ipuin kontaketa, ipuin musikatu, antzerkia, eta aurtengo argitalpen berriekin eta iazko gomendagarrienekin erakusketa girotua egin dugu. Saroa Bikandik eta Peru Magdalenak gidaturiko tailerrak ere egin ditugu. Haur eta Literatur Aretoa oso egitasmo garrantzitsua da irakurzaletasuna bultzatzeko; baita umeek euren herrietan dituzten kulturgune edo azpiegiturak ezagutzeko ere. Gure ustez, garrantzitsua da umeek txikitatik liburu bat edukitzea eskuetan, eta horrelako guneetara joateko ohitura hartzea ere bai. Garrantzitsua da

liburu bat hartzeko, ukitzeko, usaintzeko interes bat piztea eurenengan. Urrian hasi eta abendura arte egiten dugu, Durangoko Azokaren atarian. Umeentzako irakurgida bat ere kaleratzen dugu.

Durangaldeko gainerako herrietara zabalduko gura zenukete?

Bai. Benetan sinesten dugu proiektu honetan, eta uste dugu badagoela premia. Familia batzuetan ez dago antzerkiera edo ipuin kontalari bat ikustera joateko ohiturarik, eta proiektu hau eskolen bitartez bideratzen denez, ume askorentzat aukera izugarria da.

Aurten zure lehenengo Saguganbara izango duzu. Zelan hartu duzu ardura?

Erantzukizun handia da baina oso gogotsu hartu dut. Uste dut izugarriko egitasmoa dela eta gogotsu nabil lanean. Apur bat urduri ere banago, dena ondo irtetea gura dudalako. Baina oso pozik nago. Orain arte bisitari lez ezagutu dut Durangoko Azoka, eta ez zara konturatzen zenbateko lana dagoen atzean. Uste dut gune guztiok lan handia egiten gabiltzala, eta bisitari lez hori guzti hori aprobetxatu beharko genuke. Beraz, herriar guztiak Azokara joatera gonbidatzen ditut, umeak, gazteak, helduak, familiak... Euskal kulturaren murgiltzeko aukera handia da, eta dauden sortzaile guztiak ezagutzeko ere bai.

"GARRANTZITSUA DA LIBURU BAT HARTZEKO, UKITZEKO, USAINTEKO INTERESA PIZTEA UMEENGAN"

leike

Eraberritzeak
Interiorismoa
Aroztegia



www.leike.eus · Antso Estegiz, 3 Durango · Tlf.: 94 681 72 29 · leike.ad@gmail.com

SAGUGANBARA

ABENDUAK 5, EGUENA

IKASLE GOIZA

- 10:15 Txoriak txori collage-a.** Tailerra.
- 11:30 Txoriak txori collage-a.** Tailerra.
- 15:15 Abentura erraldoia. Salba dezagun kalejira.** Argia. Liburu aurkezpena.
- 16:30 Kokoak.** Pamiela. Liburu aurkezpena.
- 17:30 Iratxoak eta gabon magikoak.** Mezulari. Ipuin aurkezpena.
- 18:30 Gau Beltza. Oriar jauregiko misterioa.** Tailerra.

ABENDUAK 6, BARIKUA

- 11:30 Argizagi. Zubiak adiskidetasunerantz.** Marramiau Sorkuntza Taldea. Estreinaldia (2023ko Sormen Beka DA!).
- 13:00 Gutunak birramamari.** Denonartean. Liburu aurkezpena.
- 14:00 Zerua lapurtu dute!** Katxiporreta. Liburu aurkezpena. (Gonbidapenak 10:30etik aurrera banatuko dira, Saguganbarako atean)
- 16:00 Liburua.** 1545 argitaletxea. Liburu aurkezpena.

16:30 Maritxiki eta Burumalo. Denonartean. Liburu aurkezpena.

17:30 Baga Biga Higa. Pamiela. Liburu aurkezpena.

ABENDUAK 7, ZAPATUA

- 11:00 Ene Kantak Dantzan.** Ikuskizuna (kanpoko karpan).
- 12:10 Lo-kantak.** Elkar. Liburu aurkezpena.
- 13:00 Itsaso gazian.** Pamiela-kalandraka. Liburu aurkezpena.
- 15:00 Amestoki goxoa.** Ikas. Liburu aurkezpena.
- 15:30 Lainozko krema.** Denonartean. Liburu aurkezpena.
- 17:00 Itsaso bete urre.** Txalaparta. Liburu aurkezpena eta ipuin kontaketa.
- 18:00 Baziren behin... hiru ipuin.** Elkar. Liburu aurkezpena.

ABENDUAK 8, DOMEKA

- 10:30 Zapatekin arnas. Potx eta Lotx eta Alaia Martin.** Liburu aurkezpena eta ikuskizuna (kanpoko karpan).
- 12:00 Lamiak eta emagina.** Denonartean. Liburu aurkezpena eta kontaketa marraztua.
- 13:00 Mamuki.** Pamiela. Liburu aurkezpena.
- 14:00 Txanogorretxu.** Zeinu ipurtargia. Ipuin kontaketa.
- 16:00 Txalopin Txalo. Durangaldeko Mankomunitatea eta Enrique Morente.** Liburu aurkezpena.

DURANGO +

ABENDUAK 5, EGUENA

- 10:00 Gymkhana: digitalizazioa jokoan.** Tailerra (Bizenta Mogel Biblioteka).
- 10:30 BerPiztu ordenagailu zaharra.** Tailerra (Bizenta Mogel Biblioteka).
- 11:35 Gymkhana: digitalizazioa jokoan.** Tailerra (Bizenta Mogel Biblioteka).
- 12:00 BerPiztu ordenagailu zaharra.** Tailerra (Bizenta Mogel Biblioteka).
- 10:30-20:00 II. Eskultura Azoka. Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarte.** Arkotxa kalea, 8. Erakusketa
- 11:00-14:00/16:00-20:00 Nestor Basterretxea. Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea. Arratsaldean bisita gidatuak. Izen ematea: durangomuseoa.eus Durangoko Museoa.** Erakusketa
- 11:00-21:00 VII. Artisauen eta Sortzaileen Azoka. Eixu Artisau Elkarte.** Andra Mariko elizpe.
- 11:00-14:30/16:30-20:30 28. Euskal Denda. Arbaso Elkarte.** Merkatu plaza

ABENDUAK 6, BARIKUA

- 11:00 Kutzaz kanpo: hemen pentsatzeari jolastu esaten diogu.** Fikzio fabrika eta Badalab. Tailerra (Bizenta Mogel Biblioteka).
- 11:00 "Hartzea ematea DA!" kartel sinatzea. Udatxo eta Balu.** Topaketa
- 10:30-20:00 II. Eskultura Azoka. Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarte.** Arkotxa kalea, 8. Erakusketa
- 11:00-14:00/16:00-20:00 Nestor Basterretxea. Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea. Arratsaldean bisita gidatuak. Izen ematea: durangomuseoa.eus Durangoko Museoa.** Erakusketa

11:00-21:00 VII. Artisauen eta Sortzaileen Azoka. Eixu Artisau Elkarte. Andra Mariko elizpe.

11:00-14:30/16:30-20:30 28. Euskal Denda. Arbaso Elkarte. Merkatu plaza

12:00 Egin eztanDA! Iehiaketa. Gerediaga Elkarte eta EuskarAbentura. Lehiaketa

ABENDUAK 7, ZAPATUA

- 10:30-20:00 II. Eskultura Azoka. Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarte.** Arkotxa kalea, 8. Erakusketa
- 11:00-14:00/16:00-20:00 Nestor Basterretxea. Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea. Arratsaldean bisita gidatuak. Izen ematea: durangomuseoa.eus Durangoko Museoa.** Erakusketa
- 11:00-21:00 VII. Artisauen eta Sortzaileen Azoka. Eixu Artisau Elkarte.** Andra Mariko elizpe.
- 11:00-14:30/16:30-20:30 28. Euskal Denda. Arbaso Elkarte.** Merkatu plaza
- 16:00 Hikadromoa: etorri hadi hika egitera! ZirHika, Badihardugu eta Bagera Landako ikastetxean.** Izen ematea: labur.eus/Hikadromoa2024
- 19:30 Txistua XXI. mendean. Silboberri txistu elkarte.** Kontzertua. Jesuitak Ikastetxean (Arrupe aretoa)

ABENDUAK 8, DOMEKA

- 10:30-20:00 II. Eskultura Azoka. Eskuahaldunak Eskultoreen Elkarte.** Arkotxa kalea, 8. Erakusketa
- 11:00-14:00/16:00-20:00 Nestor Basterretxea. Diseinatzaile grafikoa eta ilustratzailea. Arratsaldean bisita gidatuak. Izen ematea: durangomuseoa.eus Durangoko Museoa.** Erakusketa
- 11:00-21:00 VII. Artisauen eta Sortzaileen Azoka. Eixu Artisau Elkarte.** Andra Mariko elizpe.
- 11:00-14:30/16:30-20:30 28. Euskal Denda. Arbaso Elkarte.** Merkatu plaza



IZURTZA

nikolas azoka

2024

abenduak 6

🕒 10:00 - 15:00

ANTOLATZAILEAK




LAGUNTZAILEAK










"Gure bizitzako lehenengo literatura lo-kantak dira"

PERU MAGDALENA ARRIAGA (DURANGO, 1980) IDAZLEA

Peru Magdalenaren proiektu berria irakurriz, entzunez nahiz kantatuz da gozatzekoa. 40 lo-kanta sortu ditu. Ibon Rodriguez musikariak doinua ipini die euretariko askori

Joseba Derteano DURANGO

Inoiz egon bako lekuan, baina aurretik sarritan egon balitz legez. Horrela sentitu da lo-kantak lehenengoz sortzen, hainbestetan jorratu duen haur literaturaren barruan. Euskarri diferentek bateratzen dituen proiektua da.

Zelan sortu zen proiektu hau?

Poesiagazko berezko joera izan dut beti. Hasi ere poesia idazten hasi nintzen, Txaman fanzinean. Aldiro poesiaren bat sehaska-kanta estilorantz joan izan zait, eta, denboragaz, horrelako batzuk banituela konturatu nintzen. Baina oraindik ez nuen proiektu hau buruan. Honen guztiaren katalizatzailea nire umetako liburu bat aurkitzea izan zen: Federico Garcia Lorcaren *Poemas y canciones para niños*. Ahaztuta neukan eta aurkitu nuenean oroitzapen uholde bat etorri zitzaidan. Kariño handia diot liburu horri. Orduantxe gatzatu zen nire buruan lo-kanta hutsez egindako poema liburu egiteko asmoa. Eta eskerrak ematen dizkiot Elkar argitaletxeari. Horrelako proiektuak konplikatua diren arren, aurrera eraman dute.

Hainbat osagai duen proiektua da. Alde batetik, idatzizko lo-kantak daude.



Lo-kantak lau liburuxka zabalgarritan banatuta daude.

Bai. Batetik, idatzizko lo-kantak daude, lau liburuxkatan banatuta: *uretakoak*, *haizetakoak*, *lurretakoak* eta *zuretako* deitzen dira. Bakoitzean hamar lo-kanta daude. Liburuxka bakoitza tematika baten ingurukoa da. *Lurretakoak* atalean, esaterako, lo-kanta bat hazten dabilen lore baten ingurukoa da, beste batean orein bat agertzen da, edo barraskilo bat... *Uretakoak* atalean ura da erdigunea: marmokak, baleak, karramarroak... Liburuxkek berezitasun bat dute: luzetara edo borobilean zabalitzen

dira. Oso gustura nago formatu horregaz. Izan ere, umeei ez zaizkie gustatzen estalki gogorak, bigunak baino, ukigarriak eta mugigarriak direnak. Zer politagorik lo hartu behar duen umeari horrelako liburuxka bat bere aurrean zabaltea baino. **Batez ere, irudiekin lagunduta badaude. Irudiak Miren Asiain ilustratzailearenak dira.**

Ez nuen Miren ezagutzen, eta bere ilustrazioak ikusi nituenean itzelak irudi zitzaizkidan. Perfektuak. Detalle txiki asko, fondo goxo baten barruan. Horman

eskegitzeko moduko liburuxkak dira.

Azkenik, Ibon Rodriguez musikariak doinua eman die lo-kanta batzuei. Nire ingurukoei behin baino gehiagotan entzun diet: "Ez dakit zer kantatu umea lokartzeko". Argi ikusten nuen lo-kanta batzuk abestuta ere egon behar zirela. Hasieran hainbat musikariri proposatu behar nien. Gerora, interesgarriagoa egin zitzaidan ahots bakarraren ideia; musikari iaio batek hainbat estilo landu eta hala ere proiektuari batasun bat eman ziezaiokeela sentitzen nuen. Orduan sartzen da proiektuan Ibon Rodriguez. Aspalditik ezagutzen dut. Proiektu honetarako propio sorturiko doinuak dira. Liburuxketako abestien ia erdiek QR kode bat dute ondoan eta lo-kanta horren abestia bideratzen zaitu.

Zelakoa izan da letrak idatzeko prozesua?

Idazten hasi aurretik lo-kanta asko irakurri nuen, euskarazkoak zein beste hizkuntza eta kultura batzuetakoak. Inspirazio iturri izan ziren. Urte bian astiro-astiro egindako proiektu gozagarria izan da. Ni neu lo geratu izan naiz lo-kanta batzuk sortzen. Ingurukoen umeei ere probatu ditugu. Horrela joan naiz lo-kantak fintzen.

Doinua ala letrak, zer etorri da aurretik?

Irudi bat hartzen nuen, horri bueltaka hasten nintzen, eta, azkenerako, erritmo moduko bat sortzen zuen. Nire buruko melodia hori erabiltzen nuen ahapaldi denetan. Beraz, erritmo hori badago letretan. Uneren batean okurritu zitzaidan Iboni doinuren bat iradokitzea, baina ni ez naiz musikaria eta adituarri bere lana libre egiten uztea

erabaki nuen. Bere sormena mugatzeko beldur nintzen. Eta eskerrak erabaki hori hartu nuela. Lan aparta egin du. Oso-tasuna galdu barik, eremu desberdinetara eraman du lo-kanta bakoitza. Letrarik gatzenei ere doinu egokia atera die. Denak *a cappella* kantatuta daude.

Lo-kantak zenbat urteko umeei daude zuzenduta?

Denentzat dira aproposak, oraindikino sabelean dauden haurretatik hasi eta adin guztietako jendearentzat dira. Esaterako, lagun batek yoga egiteko erabiltzen ditu. Eta konturatu naiz gure bizitzan jasotako lehenengo literatura lo-kantak direla, lehenengoz entzuten diren melodiak eta berbak. Ezaugarri batzuk dituzte: errepikakorrek dira, errimak daude, onomatopeiak, irudi onirikoak... Abestia zuzenean ipini ahal zaio umeari eta abestia norberak ikasteko baliatu daiteke. Baina ez da zerbait itxia; letra hartu eta nork bere doinua ipintzea ere aukera bat da. Sormenerako gonbidapena ere bada proiektua. **Abenduaren 7an, 12:10ean, Saguganbaran egongo zarete.**

Lo-kanta batzuk kontatu eta beste batzuk kantatu egingo ditugu. Gero, pare bat emankizun prestatzen gabilta: nik kontakizun bat harilkatu, eta tartean Ibonek lo-kantak abestuko ditu. Entzuleak goxo-goxo etzanda egongo dira, nahiko ilunpetan. Umeentzat zein nagusientzat izango da.

"HASIERATIK ARGI NUEN LO-KANTA BATZUK ABESTUTA ERE EGON BEHAR ZIRELA"

Anboto
TABERNA • JATETXEA

Goienkale kalca, 14
Durango - Tel.: 946 811 020

Osasunara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

enpresa-bilera ospakizunak urtebetetze jaunartze bataio

DURANGON ORDUKAKO
TXOKO ALOKAIRUA

688 861 975
zuretxokoa@gmail.com

ZURE txokoa

www.zuretxokoa.com

Komunikatzaile 23 del. no. 5. rok. - 48.200 Durango - BIZKAIA

"Tailerrak Saguganbaran egiteak ilusioa egiten dit"

USUE EGIA FERNANDEZ DE RETANA ILUSTRATZAILEA ETA KOMIKIGILEA

Usue Egiak (Durango, 1992) sormena eta jolasa lantzeko tailer bi emango ditu Saguganbaran. Abenduaren 5ean izango dira, LH3tik LH6ra arteko ikasleei zuzenduta

E.H. UMEENTZAKO TAILERRAK

Zelakoak izango dira emango dituzun tailerrak?

Tailerretan sormenaren eta jolasaren arteko hibridazio bat egitea pentsatu dut. Errotuladoreak edo koloretako arkatzak erabilita margotu barik, materiala moztuta eta itsatsita margotuko dugu. Elkarlanean onarrituriko sorkuntza saioak izango dira. Parte hartzaile bakoitzaren ekarpenak baliatuta, pertsonaiak sortuko ditugu. Lanak taldeka egingo ditugu, bakoitzak bere estilo propioa ipinita. Hori guzti hori aberasgarria da. Tailer bi izango dira, bakoitza ordubetekoa.



Usue Egia, Durangoko Ibaizabal auzoan daukan Marrazki tailerlean.

Sortuko dituzuen pertsonaiak literaturara lotuta egongo dira?

Ez dago pertsonaiak sortzeko helburu zehatzik. Parte hartzaile bakoitzaren ekarpenetik tiraka sortuko ditugu pertsonaiak. Gero, bai, pertsonaia horiei izen bat, kokapen bat, istorio bat, testuinguru bat eman diezaiekegu. Baina ordubeteko tailerra mugatua da eta ez dugu horretarako astirik izango. Edozelan ere, pertsonaia horiek istorioak garatzeko baliatu ditzakegu gero. Horixe da ideia.

Horrelako tailer batek zelan laguntzen du sormena aktibatzen?

Helduok beharbada ez diogu honi gehiegi erreparatzen, baina jolasak gure barruko irudimena aktibatzen laguntzen du. Jolasten gabiltzan bitartean, alde batera uzten ditugu buruan ditugun pentsamenduak. Ez dugu helburu zehatz bat finkatzen, ondo pasatzean ipintzen dugu arreta. Eta, helburua baino gehiago, prozesua izaten da inportanteena. Adibidez, jolas prozesu horretan frustrazioak etorri daitezke. Ariketa bat egitean, beharbada, ez duzu aurrera egitea lortzen, eta horrek

irakaspen bat uzten dizu. Jolasaren bitartez, frustrazioa kudeatzen ikasi dezakegu, gero bizitzako egoera batean antzerako sentipenak izan ditzakegu eta. Inportantea da irudimena lagun artean lantzea.

Tailerrak eman bitartean, zeure saltsan egongo zara; etxean, Durangon, eta artea inguruan.

Tailerrak Saguganbaran egiteak ilusio berezia egiten dit. Orain urte bi, Saguganbara dekoratzeko aukera izan nuen. Ilustrazioak egin nituen. Eta orain marrazki tailer bat, sormen tailer bat, Barbaroren eskutik eta nire herrian, Azokan bertan, egitea oso ilusionagarria da.

Durangoko Azokan letrak eta musika dira zutabe nagusietako bi. Zer leku du irudiak?

Iruditzen zait geroago eta garrantzi handiagoa hartzen dabilela. Literaturan geroago eta album ilustratu gehiago ikusten da. Irudia lekua hartzen dabilakoan nago. Ez dakit zerk eragin duen arrakasta hau. Ni neu pozik nago joera horregaz, letrez gainera irudiak beste dimentsio batzuetara eramateko gaitasuna ematen digu eta.

**Ondarea
Natura
Euskera**

Etorkizuna

Durangaldeko Mankomunitatea
Mancomunidad de Durangaldea

www.dma.eus

OSTALARITZA GIDA




TXO BY LES VILLES



San Roke Kalea 17,
Durango
Tel.: 94 621 83 39

Gosariak egunero 12:00ak arte.
Bazkariak asteburuetan.
Afariak egunero.



LES VILLES



Kanpatorrosteta, 1
Durango
Tel.: 94 466 84 82

Astelehenetik barikura eguneko
menua. Asteburuetan menu berezia.
Karta egunero: plater konbinatuak,
hanburgesak, sandwichak, bokatak,
errazioak...



SORGIN

Ibaizabal 4C,
Durango
Tel.: 678 586 143

Terraza berria, pintxo berriak,
txibierroak, janari minak,
errazioak, musika zuzenean.
Zatoz eta goza gaitzazu!



GORA-GORA

Ibaizabal Etxealdea, 2B
Durango
Tel.: 946 550 185

Azoka egunetan non bazkaldu?
Plater konbinatuak, hanburgesak,
ogitartekoak eta kazuelatxoak
ditugu. Etorri!



NAPOZT

Josemiel Barandiaran 8 behea
DURANGO
Tel.: 946 004 086

Azoka egunetan etorri gure
gosari eta pintxo goxoak jatera
eta afaltzera.



LA GUIPUZKOANA

Bixente Kapanaga 2, behea
Iurreta
Tel.: 946 81 10 05

Pintxoak
Ogitartekoak
Hanburgesak
Plater konbinatuak
Eguneko menua
Txuletoia

OSTALARITZA GIDA



LAPIKO

Francisco Ibarra Kalea, 3, Durango
Tel.: 946 52 26 69
www.lapikoberria.com

Abenduaren 6an, 7an eta 8an bi menu izango ditugu. 20 eta 25 -tan Ogitartekoak ere baditugu: txorizoa sagardotan edo askotariko tortillak. Askotariko gildak, urdaiazpiko iberiko errazioak eta gazta taula.



ARRIPU

Txibitena 9,
Durango
Tel.: 602 387 814

Gure berezitasuna tortillak dira, 19 zapore ditugu aukeratzeko, eta denak primerako osagaiekin egindakoak, noski.



KAIXO

Fray Juan de Zumarraga, 1
Durango
Tel.: 665 725 797


Pintxoak egun osoan zehar. Zatoz!!



EL BOTXO

Murueta Torre auzunea 8A
Durango
Tel.: 641 022 429

Hasierakoak, entsaladak, ogitartekoak, hot dog-ak, hanburgesak, sandwichak eta plater konbinatuak. Azoka gunearen aurrez aurre gaude.



ABARKETERUENA

Iturritxo 6 - Txanporta plaza, Abadiño
Tel.: 944 657 790

Eguneko menuak eta asteburuetak menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

Koldo Berría

Itsaski entsalada sagar oli oli arinarekin
Trufaz beteriko arratza 65%tan oindokokin

Bakaillao txanguruarekin

Txahal txuleta zatitua

Etxeko postrea

45,00€ pertsonako
(%10eko BEZ gabe)

Menuak mahal osokoa izan behar du
Ez ditu edariak barne hartzen

Karta ere badakagu

KOBIKA


San Inazio auzunea, 8
Durango
Tel.: 946 810 003



ALEX

Ezkurdi plaza 7
Durango
Tel.: 94 681 49 72

Durango erdian pintxo aukera handia. Terraza handia. Etorri eta probatu!



BODEGON GAUR

Mikeldi, 2 behea 1
Durango
Tel.: 612 527 436

- Askotariko pintxoak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Patata frijituak
- Errazioak

OSTALARITZA GIDA



MIKELDI

Kalebarria, 7
Durango
Tel.: 944 073 988

Gosari eta pintxo aukera handia, giro ezin hobean.



XIBERU

Zezilia Gallartzagoitia, 9
Zornotza
Tel.: 946 181 758

Gosari bereziak egunero, pintxopotea egunero eta afariak asteburuero. Giro alai eta atsegina. Ongi etorri Xiberura.



GAUARGI

Dantzari, 4 behea
Iurreta
Tel.: 944 356 674

Eramateko tortilla bereziak. Barikuetan mollete eta errazioak. Domeketan rabak eta askotariko errazioak.



ZERO

Andra Mari, 6
Durango
Tel.: 946 812 222

Zatoz eta gozatu kafe ona, gure askotariko pintxoak, asteburuetako afariak, eta gure mojito eta gin-tonic bereziak.



HERRIA

Askatasun etorbidea, 28
Durango
Tel.: 946 810 513

Astehenetik barikura goizeko 6etatik aurrera zabalik, asteburuetan 08:00etatik aurrera. Pintxoak eta gosariak. Asteburuetan rabak. Giro polita! Zatoz!



ALINÉ



Astxiki Kalea, 8
Durango
Tel.: 633 292 823

Postreak, ogitartekoak, errazioak eta momentuan eginiko jakiak eskaintzen ditugu.



AXPE

Ermodo, 12
Durango
@axpe_durango

Errazioak, ogitartekoak eta giro paregabea Azoka egunetan!



INTXAURRE ELKARTEA

Balbino Garitaonandia
plaza, Durango
Tel.: 946 200 007

Baseri bat baino zerbait gehiago. Bokatak eta pintxoak egunero. Euskal preso eta iheslariak azokara!

OSTALARITZA GIDA




BASA

ERAMATEKO JANARIA

Untzillatx, 9
Durango
Tel.: 747 421 104

Bertako eta beste herrialde batzuetako janaria. Etorri eta eraman kalean zein etxean jateko. Landako Gunetik 5 minutura.



BOTAFUMEIRO

Olleria, 10
Durango
Tel.: 946 216 036

Galizia zatitxo bat Durangon, bere espezialitateekin: Olagarroa, arrainak, eta haragia txingarretan.




OLAJAUREGI



Kurutziaga, 52
Durango
Tel.: 946 200 864

Azokako egunetan menu berezia. Ikusi nahi duzu? Sartu gure webgunera, olajauregi.com eta erreserbatu.



RUGBY

Goienkale, 18
Durango
Tel.: 946 200 007

Azoka egunetan taloak hemen!



AMALUR

Barrenkale, 19
Durango
Tel.: 692 150 199

Berezitasuna gildetan eta bermutetan. Terraza handia udaletxe parean.



OIERDI

Herriko gudarien kalea, 8
Durango
Tel.: 946 129 824

Pintxoak, gosariak eta errazioak asteburuetan.



KATAZKA



Alluitz kalea, 17
Durango
Tel.: 688 65 53 48

Gosari goxoak. Tostadak, pancakes-ak, sandwichak, gozogin artisaauak, smoothies-ak... eta gehiago. Azoka egunetan etorri probatzera!



LEZURI

Fray Juan de Zumarraga, 13
Durango
Tel.: 946 810 858

Egunero gosariak, bazkariak eta afariak ematen ditugu. Sukaldea egun guztian zehar zabalik dago.



Iazko Euskal Dendako irudia. EUSKAL DENDA

Euskal Dendaren arima izan den Bernat Vidal omenduko dute aurten

Euskal Dendak 28. aldia egingo du abenduaren 5etik 8ra. Eguzko goizeko irekiera ekitaldia Bernat Vidal omentzeko baliatuko dute. Arbaso elkarteko presidentea izan da 1995etik aurten arte, eta baita Euskal Dendaren arima ere

Joseba Derteano DURANGO

Durangoko Azokako egunetan, Euskal Dendak aurten ere ez du hutsik egingo urteroko hitzordura. Abenduaren 5etik 8ra, artisautzaren erakustokirik nagusienetarikoa 28. aldia beteko du, Arbaso elkartearen eskutik. Gaur egun duen oihartzuna jende askoren etengabeko lanari eskerrak lortu da. Hain zuzen ere, aurtengo aldian eurretari bat omentzeko baliatuko dute: Bernat Vidal. Arbaso

elkarteko sortzaileetarikoa bat da eta bertako presidentea ere izan da ia 30 urtez: 1995etik, aurten Veronica Garciak lekukoa hartu dion arte.

Euskal Dendak egunean zabalduko ditu ateak —abenduak 5—, 10:30ean, Durangoko Udaleko eta beste erakunde batzuetako ordezkariak han direla. Abagune hori aprobetxatuko dute Vidal omentzeko. Gainerako egunetan, azokak ordutegi hau izango du: 11:00etatik 14:30era eta 16:30etik

20:30era. Domekan apur bat lehenago itxiko dute iluntzean: 20:00etan, hain zuzen ere.

Iazko aldia bereziki arrakastatsua izan zen Euskal Dendarentzat. Bisitarien erregistro historiko

DURANGALDEKOEN ZAZPI POSTU EGONGO DIRA ETA EURETARIKO BATEK LEHENENGOZ PARTE HARTUKO DU

guztiak gainditu zituen, 41.164 bisitarigaz. Ordura arteko langa 35.000 bisitaritan zegoen.

53 postu, zazpi eskualdekoak

Aurten 53 postu ipiniko dituzte merkatu plazako luze-zabalean. Zerbakiari dagokienez, ohikoa den moduan, Bizkaiko sektoreak izango du ordezkariarik handiena, 32 postugaz. Hurrengo, Gipuzkoa dator, bederatzita postugaz. Nafarroatik zazpi etorriko dira, eta Arabatik bost. Eurretari batzuek lehenengoz zabalduko dute Merkatu Plaza.

Durangaldeak zazpi postu izango ditu, iaz baino bat gehiago. Sei berritako dira: Eneko bitxiak, Gorakat, Restaurarte, Jantzie, Amalur eta Veletta. Bat berria da: Nudamé.

Eneko Unzalu mañariarrak urte asko daramatza Euskal Denda parte hartzen. Dendako beteranoetarikoa bat da. Urtero legez, berak eginiko mota guztietako bitxiak erakutsiko ditu. Elorriko Gorakat dendakoen poltsek eta motxilek beteko dute beste stand bat. Aurten, zazpigarren parte-hartzea izango dute. Azke-

nik, Restaurarte zaharberritze tailerrekoak ere hainbat bider egon dira Euskal Dendan, eta 2010ean standik onenaren saria jaso zuten.

Jantzie, Amalur eta Veletta iaz estreinatu ziren Euskal Dendan. CY Jantziak-ek euskal tradizioagaz loturiko jantziak eta tresnak eramango ditu batez ere: kaikuak, festarako baserritar jantziak, doluzkoak edo dantzakoak, eta tradiziozko prakak, alkandorak... Zornotzako Euskal Herria enparantzan dute euren denda. Durangoko Velettaren produktu izarrak toteak eta motxilak dira. Eskari bidez lan egiten du, Interneten (www.veletta.shop) eta sare sozialetan Instagramen (@myveletta). Abadiñoko Amalurrek mota guztietako arropak eramango ditu merkatu azokara.

Berrizko Nudamé lehenengoz egongo da aurten; makramea lantzen dute bertan. Hauek dira sortzen dituzten produktu batzuk: txakurrentzako lepokoak eta uhalak, animalientzako kabestruak, eta loreontziak sabaitik eskegitzeko euskarriak. Eskumuturrekoak ere egiten dituzte.

"Belgikan ez dugu azoken kultura hau"

LEONI TER HAAR (BELGIKA, 1990) ARTISAUA

Berrizen bizi den Leoni ter Haar-ek lehenengoz bisitatuko du Euskal Denda. Nudamé izeneko negozioagaz, makrame artearen bidezko objektuak egiten ditu

Joseba Derteano BERRIZ

Orain lau urte, Leoni ter Haar belgikarra naturaz eta animaliez inguraturiko baserri batean bizitzen hasi zen, Berrizen. Gante hiria Okango auzoko landa eremuagaz aldatu zuen. Sorterrian, filmetako eta tele-sailtako arte eta dekorazio departamenduetan lan egiten zuen. Hemen, artisautza ogibide bihurtu du azken urte eta erdian. Makramea erabilia, askotariko produktuak sortzen ditu: txakurrentzako lepokoak, eskumuturrekoak, landareentzako dekorazioa... Egunotan buru-belarri lanean dabil aurretik duen erronkari begira: Euskal Dendan lehenengoz parte hartuko du.

Zelan sartu zen artisautza zure bizitzan?

Aurretik makrameagaz gauzak egindakoa naiz, hobby lez. Gerora, Interneten ere ikusi ditut makrameagaz animalientzat egindako lepokoak. Beraz, orain urte eta erdi probatzea erabaki nuen. Makramea eskulangintza edo arte originala iruditzen zait. **Baserriko inguru naturalean bizi zara, animaliaz inguratuta. Bikotekideak eta biak sei txakur eta hamahiru zaldi dituzue, besteak beste. Hau guzti hau sorkuntzara-ko inspirazio iturri duzu?**



Leoni ter Haar Okango auzoko baserrian, bere produktuekin.

Animaliak oso inportanteak dira niretzat, baita landareak ere, eta nire sorkuntzetan nabaria da hori. Naturatik ideiak hartzen ditut; adibidez, koloreak eta euren konbinazioa. Begira udazkeneko kolore abanikoari. Urtaro bakoitzak bere koloreak ditu eta asko erreparatzen diet. **Zelan sortu zen Euskal Dendan parte hartzeko aukera?**

Euskal Denda behin bisitatu dut, orain hiru-lau urte. Lagun batek postu bat zuelako joan ginen. Gerora, ezagutzen ditudan artisau batzuek azoka ikaraga-

rria zela esan zidaten, eta "probatu dezaket" pentsatu nuen. Bilboko Gabonetako azokan ere egongo naiz. Biak aukera handiak dira eta oso pozik nago.

Produktu asko egin beharko duzu azoka bietara eramateko. Estres handiko egunak dira hauek?

Bai, oso estresagarriak. Galdetu nire bikotekideari: "Lasai hartu, Leoni!", esaten dit. Stock handia behar dudala esaten didate denek. Urritik hona geratu barik nabil. Ordu asko dira eta atzamarretan igartzen dut, egia esanda. Baina ez dit ardura. Askok gustatzen

zaidan lana da eta ilusio handiagaz nabil.

Zer espero duzu Euskal Dendatik? Ardura apur bat dut, produktu nahikoa egingo ote dudan, jendeari gustatuko ote zaion... Jendeari gustatzen bazaio, horixe izango da niretzat saririk onena. Batzuetan, beste azoka batzuetan nagoenean, inoiz ikusi dut txakur bat nik egindako lepoko bategaz, eta asko poztzen nau. Lan guztiak merezi duela sentitzen dut.

Eskaripean lan egiten duzu?

Bai, eskariak negozioaren parte inportantea dira. Azoketan nahiz Instagrameko kontuan [@nudame_] egiten dizkidate eskaerak. Esaterako, lepoko bat gustatu zaie baina handiegia edo txikiegia da, eta beste tamaina batekoa eskatzen didate. Nik baietz esaten diet, baina zertxobait aldatuko dudala: kolorea, itxigailua... Izan ere, txakur bakoitzak bakarra eta originala den zeozer eramatea gustatzen zait.

Txakurrentzako lepokoek gainera, zer beste produktu egiten duzu?

Denerik: txakurrentzako lepoko normalak, kaparren kontrakoak, uhalak eta jolasak; zaldientzako eta astoentzako kabestruak; loreontziak sabaitik eskegitzeko euskarriak; eskumuturrekoak, diademak eta esterak eramateko uhalak; eta baita umeentzako sehaska gainean zintzilikatzen diren jostailu mugikorak, besteak beste. Animalientzat egindako guztia paracort materialagaz egiten dut, jausgailuak egiteko erabiltzen den materiala.

Zer produktuk du eskaerarik handiena?

Txakurrentzako lepokoek eskaera handia dute. Jendeari asko gustatzen zaizkio eta originalak direla diote. Loreontziak zintzi-

likatzeko euskarrietan gauza bitxi bat gertatzen zait. Batzuetzat denboran bidaiatzearen modukoa da. Txikitari egin izan dituztela esaten didate.

Egin duzu inoiz zuretzat esangura bereziren bat duen produkturik?

Behin katuentzako ohe bat egin nuen, gauza berriak sortzea gustatzen zaidalako. Instagrameko kontuan ipini nuen, erakustegaitik bakarrik, ez saltzeko kontuagaz. Ba, argazkia igo eta ordu erdira pertsona batek erosi zidan, asko gustatu zitzaioela eta. Gero, gauza bat gertatzen zait. Egindako produktuen artean, neure kutunak ditut, koloreagaitik edo dena delakoagaitik. Eta euretariako bat saltzen dudanean, pena ematen dit, ez dudalako gehiago ikusiko (barreak). Baina aldi berean poztu egiten naiz, jabe berri bat duelako.

Belgikan zelakoa da artisau mundua?

Belgikan bigarren eskuko azoka asko dago, baina artisautza arlokoak apenas ikusten dira. Hemen, ostera, artisau azoka asko dago. Kuriosoa da, Belgikan ez dugu kultura hau. Niri neuri asko gustatzen zait artisau azokak bisitatzeko: ikusi, galdetu, oparietarako erosi...

Gaur egun, Interneteko salmentak aurrea hartu dio aurrez aurrekoari ala azokek funtsezkoak izaten jarraitzen dute?

Nik urte eta erdi daramat mundu honetan, baina, nire esperientziatik, azokek garrantzitsuak izaten jarraitzen dute.

"STOCK HANDIA BEHAR DUDALA ESATEN DIDATE DENEK. URRITIK HONA GERATU BARIK NABIL"

EUSKAL
GURE ARTISAUTZAREKIN DUGUN ZITA!
28 DENDA

www.euskaldenda.info facebook.com/arbasa @arbasa.artesania

Euskal Herriko Artisautzaren Azoka
Abenduak 5 - 8
Durangoko Azoka Plazan

ORDUTEGIA 11:00-14:30 / 16:30-20:30

Ikaratu barik 'hikaratzera' deitu du Hikadromoak

Durangoko Azokak Euskal Herriko lehenengo 'Hikadromoa' hartuko du abenduaren 7an. Hitanoaren erabilera galtzen dabilela iritzita, trataera horretan trebatzeko saio erraldoia egingo dute Landako Eskolan. Saioa 16:00etan hasiko da

Ekaitz Herrera HIKADROMOA

Ezagunak genituen *Mintzodromoak*, euskarazko berriketaldiak sustatzeko topaketak. Eta orain, egitasmo horri buelta berri bat emanda, hitanoa sustatzeko saioa egingo dute: *Hikadromoa*. Hitanoz aritzeko saio kolektiboak bere lehenengo edizioa izango du abenduaren 7an, Durangoko Azokaren aterkipean. Landako Eskolan egingo dute, 16:00etatik 18:00etara. Parte hartzaileak launakako taldetan batuko dira, mahai baten bueltan ordu laurden batez gai bati buruz hika egiteko. Denbora tarte hori igarota, lau kideetariko hiru kokalekuz aldatuko dira, gai berri



Justo Alberdi eta Kristina Mardaras.

bat berbagai hartzeko. Ariketa kolektiboan parte hartu gura dutenek inprimaki bat bete dezakete dagoeneko. Beste aukera 943 121 775 eta 652 750 947 telefonoetara deitzea da.

Egitasmoaren atzean ZirHika taldea dago, Euskal Herriko luze-zabalean hitanoa sustatzeko asmoz dabilzanan mugimendua. Oiartzungo, Arratia aldeko, Markina-Xemeingo, Lekunberriko, Goizuetako, Azpeitiko eta Leitzako herritarrak dira topakeluan parte hartzen dabilzan kideetariko batzuk. Eskualdeari dagokionez, Zornotzako eta Iurretako herritarrak ere badaude: Oromiñoko Justo Alberdi eta Kristina Mardaras, adibidez. "Hitanoa galtzen zebilek. Ez zagoz transmisiorik. Leku batzuetan, bai, egin duk transmisio naturala, baina beste leku batzuetan ikastaroek bermatu ditek segida hori. Gainera, hitanoaren barruan gehien galdu den trataera emakumearena duk, noka egitearena", azaldu du Mardarasek. Justo Alberdiren iritziz, bertsolaritzak gazteekin lortu duen konexioa erabili daiteke hitanoa susta-

tzeko ispilu lez: "Gazteriak no-bedade edo erronka lez ikusi behar dik hitanoa; adibidez, ligatzeko tresna lez. Auzia erronka lez ulertu behar delakoan nagok. Izan ere, hitanoa bazagok, euskara zagoz". Hikadromoko esperientzia baliagarria izango zaie ZirHika taldeko kideei, aurrera begirako pausoak pentsatu eta emateko. Alde horretatik, Mardarasek eta Alberdik Hikadromoan parte hartzera deitu dituzte herritarrak: "Hikaratu hadi, ikaratu barik".

Hikadromoaz gainera, hitanoari buruzko beste hainbat jardunaldi egongo da Azokan. Abenduaren 6an, 19:20an, trataera horretan trebatzeko tresna digitalak aurkeztuko dituzte Kabi@n: sakelakoetarako *Appa Hi!* aplikazioa eta *hika.ahotsak.eus* ataria. Behin saio hori amaituta, Leitzako hitanoa berpizteko esperientziaren berri emango dute hango kideek. Abenduaren 7an, Deustuko Unibertsitateak eta Euskal Gaien Institutuak *Hik eta biok* mahai-ingurua egingo dute Talaian, Arte eta Historia Museoa, 11:30ean.



HEGAN RENT

Goitondo behekoa industrialdea, 1-1 partzela
48269 Mallabia (Bizkaia)
Tel.: 943 171 362

administracion@alkideba.net · www.alkideba.net

Furgoneta alokairu zerbitzu berria!




UNAI GARAY

ITURGINTZA · BEROGINTZA · GASA
INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790 · unaigaray@yahoo.es



DESGUACES PILASTRA

CAT zk. EU2/097/04

Desegiteko diren ibilgailuen erosketa
Ordezko pieza erabilien salmenta
Grua zerbitzua

Administrazioa, bajak eta faxa: 946 218 079

Osagarrien salmenta: 946 201 787

e-mail: desguacespilastra@gmail.com

Fauste auzoa, 18 IURRETA (Zugastietara bidean)



Martin Arbo, 'Liluraren kontra. Trantsizio geopolitikoaren argi-ilunak' liburuagaz.

"Saiatu naiz geopolitika erarik pedagogikoenean lantzen"

MARTIN ARBO SARRIUGARTE IDAZLEA

Trantsizio geopolitikoari buruzko lana kaleratu du urrian

A. Basauri DURANGO

Martin Arbeok (Durango, 1996) 'Liluraren kontra. Trantsizio geopolitikoaren argi-ilunak' lana aurkeztuko du Azokan. Iratzar fundazioak eta Txalapartak elkarlanean kaleratzen duten Iparrorratza bildumaren 9. alea da. **Zein da munduan bizi dugun egoeraren erretratu?**

Azken urteotan nazioarteko ordena hautsi egin da eta sortutako testuinguru oso ezegonkor horretan indar militarren erabilera dabil normalizatzeko eszenatokian. Horri azken urteotako krisi ekosoziala eta honen ondorioak batu behar zaizkio. Biak elkarlotzen ari dira. Korapilo hori gerra dinamiken bitartez askatzeko tentaldi bat egon daitekeela mahaigaineratu dut liburuan: ezer egin ezean gerra da egungo gizartearen ortzimuga. Horren aurrean, erantzuna bakearen bandera altxatzea izan behar dela planteatzen da, Euskal Herrikeri ere, eta esparru guztietan, gerra oro elikatzen duen zantzurik txikienak oztopatzen saiatuz. **Beraz, gerra da irtenbide bakarra?**

Hori ematen du. AEBak galtzen ari dira munduan izan duten hegemonia, krisian daude, gainbeheran. Eta krisi horri eszenatoki belikoak sortuz ari zaio erantzuten. Gerra dinamikekin sorturiko indar harremanen bitartez, ordena berria eratzen dabil. Gainera, eragin zuzena dute herrialdeen barne dinamikan: barne politika lagun-etsai eskemetan artikulatzen da, gerra erregimena babesten duen oro

bihurtuz sistemaren lagun, eta aurka kokatzen dena etsai. Ondorioz, mendebaldeko demokrazia liberalak geroago eta autoritarioagoak, patriarkalagoak eta kolonialagoak dira. Krisi ekosozialagaz lotuta, esplotazio erregimenak gogortuz eta gerra dinamika imperialen bitartez lortzen dira agortzen ari diren baliabideak, eta geroago eta gaxtagoa den etekin ekonomikoa.

Boterea birbanatzen ari da.

Trantsizio geopolitiko batean gauden zantzueteriko bat da munduaren gune ekonomiko, politiko, teknologiko eta demografikoa mugitzen dabilela, geroago eta ekialderago. AEBen krisia baliatuta, nazioartean euren ahotsa errespetatzea eskatzen duten aktore berriak agertu dira; nagusia, Txina. Europa, ostera, gainbehera prozesuan sartuta dago, noraezean; munduaren erdigunean egotetik periferian kokatzeko trantsizioan. Polo bakarren bueltan eraturako mundutik mundu multipolar bateranzko trantsizioan gaude. Eztabaida da zenbateraino ari diren polo anitzak sortzen edo bigarren polo bat sortzen.

Zelako erantzuna izan du liburuak? Mundua eraldatu gura bada aurretik garrantzitsua da hori ondo interpretatzea. Premisa horretatik abiatuta, eztabaidarako proposamen bat da liburua. Gaia erarik pedagogikoenean lantzen ahalegindu naiz, eta, alde horretatik, pozik nago. Eskertu dute ahalegina. Nahiko erraz ulertzen dela esan didate.



JON GEREDIAGA
ZERU-LURREN
LIBURUA

EZAGUTU
SARITUTAKO
LANAK



JULIA OTXOA
BAJO LOS ASTROS
DE LA REPETICIÓN



DAVID DE LAS HERAS
CAMPOS
DE CASTILLA



HARKAITZ CANO
MUNDUA PITZATUTA
DAGO BAINA HANTXE
GABILTZA OINEZ



AIORA JAKA IRIZAR
INDEPENDENTZIEN
EGUZKIAK



JON URZELAI
URBIETA
SU FESTAK

20
24 EUSKADI
LITERATURA
SARIAK



"Durangoko Azoka gune ederra izaten da batzeko"

LEIRE BILBAO BARRUETABEÑA IDAZLEA

Bilbaok lan bi argitaratu ditu eta abenduaren 6an aurkeztuko ditu biak. 'Klera' Talaien aurkeztuko du, 12:00etan, eta 'Zerua lapurtu dute!' Sagunganbaran, 14:00etan



Leire Bilbao. OLGA RUIZ

M. Zuazubiskar HAUR LITERATURA

Leire Bilbao idazle bizkaitarrak ez du lan faltarik izan azken hileotan. Lan berri bi aurkeztuko ditu aurtengo Azokan: *Zerua lapurtu dute!* eta *Klera*. **Hasteko eta behin, badator Durangoko Azoka eta ez dago Azokarik Leire Bilbaoren lanik barik. Zelan zaude?**

Durangoko Azoka gune ederra izaten da batzeko, bai sortzaile bai euskal kulturako lagun askorentzat, eta gogotsu nago, bai.

Abenduko zubi horretan Durango bera ere Euskal Herriko txoko guztietako jendez betetzen da eta ederra izaten da giro hori ikustea euskal kulturaren inguruan.

Zure lanei dagokienez, lan bi aurkeztuko dituzu. Alde batetik, *Zerua lapurtu dute!* disko ilustratua, *Katxiporretako* lagunekin batera. **Zer topatuko dugu ipuin-disko horretan? Katxiporretako kideak sortzen ibiltzen dira une oro, eta aurten Aranzadi Astronomia elkarteak**

pailazoaren irismena erabiltzea erabaki du gai garrantzitsu baten inguruan berba egiteko. Aranzadikoez sudurgorriengana jo zuten argi-kutsaduraren inguruko lan bat egiteko. Hau da, zerua dena da eta gehiegizko argi kutsadurak ez digu uzten izarrak ikusten. Orain urte asko, esaterako, itsasgizonak izarrei begiratuta egiten zituzten bidaiak. Zerura begiratuta mundua deskubritzeko aukera zuten, eta hala bidaitzen zuten eurek. Baina orain,

itxura batean, lapurtu egin digute zerua, eta hori deskubritzen lagunduko dute pailazoek.

Azken batean, honegaz erakutsi gura da guk geuk lapurtu diogula ondare natural hori geure buruari, gizakiok, eta argi-kutsaduraren kontzientziarioa landu beharra dagoela. Gainera, gaur egun, askotan jestua aldatuta gabiltza, kokotsa behera, mugikorrari begira, eta beste pantaila horretan ditugu begiak itsatsita, zerua ez den beste pantaila horretan, eta pentsatzen dugu mundua hor dagoela. Beraz, umeek eta helduok kokotsa altxatu eta beste espazio batzuetara begiratzea da asmoa. Mugikorre planto egin eta gure ingurura eta zerura begiratzea.

Lana album bat da, 12 kanta ditu, eta horietatik lau berriak dira, beren-beregi disko-libururako sorturikoak. Letrak neuk egin ditut eta Xabi Zabala da konpositorea.

Ez da Katxiporretako kideekin lan egiten duzun lehenengo aldia. Zelako esperientzia da zuretzat pailazoekin lan egitea?

Sudurgorriekin lan egitea zoragarria da. 2018an egin genuen lehenengo lana elkarlanean, *Musua*. Oso harrera ona izan zuen eta ordutik hona hainbat lan egin izan dugu.

Bestalde, *Klera* lana ere kaleratu duzu. Zer jasotzen du liburu honek?

Klera album bat da itxuraz, baina ez da marrazki, ilustrazio eta berbekin osaturiko album soil bat. Artefaktu literarioa da. Bertan, hainbat lengoia erabiltzen da. Neureak dira hitzak, June San Sebastianenak ilustrazioak, eta zerbait gehigarria dago. QR kode batzuk daude, eta horiek zabalduz gero, irakurleak Kukai dantza taldeko dantzariak aurki ditzake, Maite Larbururen mu-


sikas lagunduta eta David Berneseke iruditan jasota. Horrek guzti horrek koska bat gorago eramaten du irakurketa, nahiz eta oinarrian berba egon.

Berba horretan zer jasotzen da?

Orain 14 bat hilabete Jon Mayaren enkargua jaso nuen. Euren jarduna oholtzan hasten dela esan zidan, baina bertatik bajatzen direnean euren lana, modu batean, lurrundu egiten dela. Eta, beraz, zerbait euskarri fisiko batean atera gura zutela esan zidan. Hainbat buelta eman nion gaiari, zer kontatu genezaken erabakitzeke, eta Ukrainako gerra aspaldi hasita zegoela jakinda eta handik gutxira Gazako bonbardaketak ere hasi zirela ikusita, hauxe proposatu nion: gerretan haurrak hiltzen dituztela erakutsiko dugu? Eta, zehatzago esanda, gerra bat bertatik bertara bizi duen umeak heriotzagaz duen elkarrizketa erakutsiko dugu? Ze, ez da berdina guk guretik izan dezakegun elkarrizketa edo gerra baten erdian dagoen ume batek eduki dezakeena. Orduan, aldarri bat ere bada, gerretan umeak hiltzen dabiltzala, eta horren gaineko kontakizun fikzionatu bat da, lengoia artistiko desberdinekin. ***Klera*-n ere elkarlana izan da oinarri?**

Bai. Eta dantzaren eta irudiaren arteko elkarlan horrek beste irakurketa posible batzuk eman dizkio liburuari. Elkarlan horrek artefaktu literario egiten du liburu.

"DANTZAREN ETA IRUDIEN ARTEKO ELKARLANAK ARTEFAKTU LITERARIO EGITEN DU LIBURUA"



Ikasiz Goza Ezazu!

www.aquariumss.com

WWW.AQUARIUMSS.COM
ANBOTO SAN SEBASTIAN
AQUARIUM